

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAILA
Azterlanen eta Araubide
Juridikoaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Estudios
y Régimen Jurídico

GIZARTE-EKONOMIAREN ESTADISTIKA 2006

2004-2006 biurtekoaren txostena


*Ikertalde egindako txostena.
Saileko Estadistika-organoa espezifikoak berrikusia eta zuzendua*

EMAITZEN LABURPENA

EXEKUZIO LABURPENA

2008. urtean euskal gizarte-ekonomia 2.387 enpresek osatzen zuten guztira, eta Euskal Autonomia Erkideagoan (EAE) kokatuta zeuden establezimenduak 3.096 ziren. Establezimendu horiek 63.073 enplegu sortzen zituzten eta Balio Erantsi Gordinaren (BEG) 2.944 milioi euro.

Bilakaeraren dinamikari dagokionez, 2004 eta 2006 artean establezimendu kopuruaren hazkunde-tasa %2,1 izatera iritsi zen, eta enplegua %3,8 handitu zen. Sortutako BEGa %20,1 handitu zen termino nominaletan (%12,4 gutxi gorabehera, 2004-2006 biurtekoaren inflazioa deskontatuta.¹).




Enplegu garbian 2004-2006 epean izan den hazkundera neurri handi batean industria-alorraren suspertzeari zor zaio. Era berean, hirugarren sektoreko kooperatiba handien bilakaera positiboak ere eragin handia izan du.

Epe horretako ezaugarri nabarmenenetako bat, izan ere, gizarte-ekonomiaren industria-enpleguak 2004-2006 biurtekoan izandako suspertzea izan da. Aurreko biurtekoan enplegu mota horrek bilakaera negatiboa erakutsi bazuen ere, 2004-2006 biurtekoan suspertu egin da, %3,2ko hazkundera lortuta.

¹ 2005. eta 2006. urteetako BPGdaren deflaktatzailearekin deflaktatutako kopurua. EAEko Aurrekontu Orokorrak; %3,4 hurrenez hurren.

Era berean, nahiz eta aurreko biurtekoetan baino intentsitate txikiagoan izan, hirugarren sektorerako jitzeko prozesuaren jarraipena antzeman da. Horiek horrela, 2004. eta 2006. urteen artean enplegua %5,2 handitu zen zerbitzuen sektorean, industria-sektorearen hazkunderaren gaitetik, beraz, baina aurreko biurtekoan izan zuen %8,8ko hazkunderatik urruti samar geratu zen.

GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIA-ENPLEGUAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREKO ENPLEGUAREN BILAKAERA
(Hazkunde-tasak 2003-2004 eta 2004-2006 biurtekoetan)



BEGari dagokionez, 2006. urtean 2004. urtean baino emaitza hobek sortu ziren, neurri handi batean gizarte-ekonomiako enpresa handien ekarpenaren ondorioz, alegia industria-sektoreko (horietako batzuek 2004. urtean oso emaitza negatibo edota eskasak lortu zituzten) nahiz zerbitzuen sektoreko enpresek egindako ekarpenen ondorioz.


Establezimendu, enplegu eta BEGaren inguruko kopuruek erakusten dute 2004-2006 biurtekoan gizarte-ekonomiaren susperraldi nabaria eman dela. Hortaz, kopuru horiek joera aldaketa eman dela erakusten dute, 2003-2004 biurtekoan geldialdia izan, eta horren ondorioz euskal ekonomian gizarte-ekonomiak pisu erlatiboa galdu ondoren.

Deskribatutako bilakaera eta aurreko biurtekoa baino hobea den egoera ekonomiko hori 2006ko ekitaldiko gizarte-ekonomiaren enpresen emaitza ekonomikoetan gauzatu dira, 527 milioi euroko etekin agregatua sortu baitute; 2004ko ekitaldian lortutako etekinetik gora nabarmen, urte horretan etekinak 368 milioi euro izan baitziren (%43,2 gehiago termino nominaletan eta %33,9 gutxi gorabehera termino errealetan²). Emaitza horrek argi eta garbi adierazten du biurteko honetan 2004. urtearekiko dinamika aldaketa eman dela.

² 2005. eta 2006. urteetako BPGdaren deflaktatzailearekin deflaktatutako kopurua. EAEko Aurrekontu Orokorrek: %3,4, hurrenez hurren.

Izan diren deslokalizazio prozesuak gorabehera³, emaitzen hobekuntza gizarte-ekonomiaren alorreko industria-enpresa handien jardura esportatzailearen indar handiagoan oinarritu da. Enpresa horiek jarrera esportatzailea hobetu dute, euroaren sendotasunari uztartutako zailtasunetatik harantzago.


KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE-MAILAREN BILAKAERA
(Esportazioen bolumena, fakturazio osoarekiko). 1996-2006



Orokorki, **gizarte-ekonomiak erakutsitako bilakaera euskal ekonomia osoak izan duena baino positiboagoa izan da. Horiek horrela, hobetu egin du ekonomia orokorrean duen pisu espezifiko, enpleguari zein BEGari dagokionez, hurrenez hurren %6,6 eta %5,3an kokatuta.** Kopuru horiek 2004. urteko mailak gainditu dituzten arren, ez dira 2002. urtean markatutako maila gorenera iritsi.


GIZARTE-EKONOMIAREN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA EAEko EKONOMIAREKIKO. ENPLEGUA 1996-2006

ENPLEGUA



³ Atal honetan aipatzekoak dira MCC kooperatibaren barruko enpresek sortutako plantak. Era horretan, 2007ko lehen seihilekoan goraka ari den Txinako merkaturan 4 filial irekitzea aurreikusten zen, eta, ordurako 65 filial produktibo zeuden 18 herrialde diferentetan, MCC Taldearen oroitidazkiaren arabera.


GIZARTE-EKONOMIAREN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA EAEko EKONOMIAREKIKO. BALIO ERANTSI GORDINA 1996-2006



Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik abiatuta egindako balioespena. Eustat

Hobekuntza nabarmenena Bizkaian eman da; izan ere, gizarte-ekonomiak lurraldearen ekonomian duen pisua %4,8tik %5era hazi da.

GIZARTE-EKONOMIAK EAEko EKONOMIAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA (Enpleguaren pisu erlatiboa, lurralde historikoaren arabera). 2004-2006



Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestatik abiatuta egindako balioespena. Eustat 2006

Estatu osoko gizarte-ekonomiaren produkzio-egituraren barruan, EAEko gizarte-ekonomiak enplegu osoaren funtsezko zati bat hartzen du bere gain. Ildo horretan, euskal gizarte-ekonomia Estatuko gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren %15,2 da.

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN GARRANTZI ERLATIBOA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA 2006

Autonomia Erkidegoak	(%v)
Andaluzia	%20,6
Aragoi	%2,4
Asturias	%1,5
Balear Uharteak	%0,8
Kanariak	%2,3
Kantabria	%0,6
*Gaztela-Mantxa	%5,4
Gaztela eta Leon	%3,7
Katalunia	%12,0
Valentziako Erkidegoa	%15,3
Extremadura	%2,3
Galizia	%3,2
Madrilgo Erkidegoa	%6,0
Murtzia	%5,9
Nafarroa	%2,1
Euskal Autonomia Erkidegoa	%15,2
Errioxa	%0,5
Ceuta-Melilla	%0,1

Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa

Deskribatu dugun testuinguru positibo horretan, establezimenduen eta enpresen batez besteko tamaina, enpleguaren terminoetan hitz eginda, handitu egin da 2004. urteko datuekin alderatuz gero. Eta forma juridiko guztiak dinamika horren barruan sar daitezkeela adierazi behar da.

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN DIMENTSIONAREN ADIERAZLEAK



	2004	2006
Establezimendu/enpresa kopurua	1,4	1,3
Enpresen batez besteko tamaina (Enpleguak)	25,7	26,4
Establezimenduen batez besteko tamaina (Enpleguak)	18,4	20,4

Hala eta guztiz ere, forma juridikoari dagokionez, nahitaezkoa da hainbat elementu bereizgarri aipatzea. Ildo horretan:

- Sozietate Anonimo Laboralek (SAL) gizarte-ekonomian duten garrantzi erlatiboa galtzen jarraitu dute, establezimenduei zein enpleguari dagokienez.
- Sozietate Mugatu Laboralen (SLL) establezimenduak termino absolutuetan egonkortu egin dira eta termino erlatiboetan zertxobait atzera egiten dute. Dena dela, enpleguaz ari garenean horien parte hartzea hobetu egiten dela adierazi behar dugu, duten langile kopurua handitu egin baita. Horiek horrela, SLLen enplegua, dagoeneko, SAL sozietateen enpleguaren %61 baino gehiago da.

- Azkenik, establezimendu kopuruari dagokionez, kooperatibek nabarmen hobetu dute beren lekua, eta lanari buruz esan beharra dago goranzko joera sendotu egin dutela.


ESTABLEZIMENDU ETA ENPLEGUEN BANAKETAREN BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2002-2006



Beste alde batetik, oraindik ere enpresa profil eta enpresa logiken barruan egitura dualtasun nabarmena dagoela antzematen da enpresen tamaina, forma juridiko eta enpresak kokatzen diren jarduera-sektorearen arabera, baita produktibitate-maila nabarmen desberdinak ere. Ildo horretan, bilakaera positibo orokorraren testuinguru baten barruan, enpresa handiek epe horretan indar handiagoa izateak areagotu egin du gizarte-ekonomiaren establezimendu mota desberdinen arteko distantzia.

Enpleguaren lurralde dinamikari dagokionez, ez du alde garrantzitsurik adierazten 2004ko datuekin alderatuz gero. Aipatu behar da Gipuzkoak gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren barruan duen paper erabakigarria finkatu egin dela.

GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN LURRALDE BANAKETA 2002-2006




Arloz arloko ikuspegi batetik begiratuta, lurralde bakoitzeko gizarte-ekonomiaren pisu espezifikoak, aurreko ekitaldietan bezalaxe, egiaztatu egiten du industriak Gipuzkoan duen garrantzia, hori baita gizarte-ekonomiaren industria-kooperatiba handi gehien biltzen dituen lurraldea (Gipuzkoan industriaren alorreko enpleguen bat baino zertxobait gehiago gizarte-ekonomiari dagozkio). Bere aldetik, Bizkaian gizarte-ekonomiaren hirugarren sektoreak pisu espezifiko handiagoa du, eta goraka ari da gainera, establezimendu zein enpleguei dagokienez.

GIZARTE-EKONOMIAREN ETA EAEko ENPLEGUAREN LURRALDE ETA ARLOZ ARLOKO BANAKETA


	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Gizarte-ekonomia	EAE	%	Gizarte-ekonomia	EAE	%	Gizarte-ekonomia	EAE	%
Lehen sektorea	51	3.500	%1,5	58	4.800	%1,2	24	4.200	%0,6
Industria	2.581	45.900	%5,6	9.038	109.000	%8,3	20.732	94.300	%22,0
Eraikuntza	330	11.700	%2,8	1.110	47.000	%2,4	789	25.300	%3,1
Zerbitzuak	3.006	83.000	%3,6	14.308	342.300	%4,2	11.046	201.000	%5,5
GUZTIRA	5.968	144.100	%4,1	24.514	503.100	%4,9	32.591	324.800	%10,0

Iturria: EAEko Biztanleria Landuna, BJA Eustat 2006



Azkenik, 2006an gizarte-ekonomiaren alorreko enpresek egindako inbertsioei dagokienez, inbertsio materialaren zenbatekoa (291 milioi) aipatu behar da, ibilgetuan egindako inbertsio guztien zati handiena bezala, ibilgetu immaterialean (33 milioi euro⁴) egindako inbertsioekin konparatuta.

IBILGETU MATERIAL ETA IMMATERIALEAN EGINDAKO INBERTSIOAK 2006 (€ milatan)



LABURBILDUTA

2004ko ekitaldiak ekarri zituen emaitza positiboak bukatu ondoren, 2006ko gizarte-ekonomiaren estatistikak berriro ere hazkundearen bidetik ari garela erakusten du. Hazkunde hori EAEn enpleguan eta BEG balioan erregistratutakoa baino zertxobait handiagoa denez, gizarte-ekonomiak aukera du aurreko biurtekoan galdutako posizio erlatiboan zati bat berreskuratzeko.

Jarrera positibo horren oinarrian, batez ere industria-sektorearen suspertzea dugu, erakusten duen aldeko dinamika hori nahikoa orokorra baita. Sektoreretan, enpresa handiek 2004. urtean eman ziren emaitza txarrak atzean utzi dituzte. Dinamika hori, funtsean, esportazioen susperraldiari zor zaio, fakturazio bolumenean lortutako ratioak 2002. urtean lortutako ratioetatik oso gertu baitaude.

Zerbitzuek, prozesu horretan, industriak bezalako emaitza onak lortu dituzte, batez ere merkataritza eta finantzen alorretako enpresa handien bilakaera onari esker. Era horretan, EAEn alor horren tertziarizatzeko prozesuak aurrera jarraitu du, aurreko biurtekoan baino

⁴ Aipatu beharra dago 2006. urtearen inguruko datuetan zuzenketa koherentea burutu dela; izan ere, ibilgetu materialean eta immaterialean egindako inbertsioetan izan diren aldaketak, hazkundeak zein gutxitzeak, hartu dira kontuan. Aurreko ekitaldietan, berriz, ibilgetuan (inbertsioak) ematen ziren aldaketa positiboak soilik kontabilizatzen ziren, eta aldaketa negatiboak (desinbertsioak) ez ziren aintzat hartzen.

erritmo apalagoan izan bada ere, eta hazkunde-mailak ere progresiboki ajustatuagoak izan arren.

Horiek horrela, 2006ko gizarte-ekonomiaren estatistikak ekonomiaren sektore honek egindako ahaleginaren berri ematen du:

- Jarduerak nazioartekotzeko (industria bereziki) edo estatalizatzeko (zerbitzuak) prozesuak integratzen dituen bitartean, ahalegina egin du tokiko enplegua sortzeko profila mantentzeko, euskal egitura produktiboaren antzerako erritmoetan edo horien gainetik dauden erritmoetan. Horrekin batera, gainera, sozietateek sortzen duten enpleguaren pisu kuantitatiboa indartzeko ahalegina egin dela sumatzen da.
- Enplegua sortzeko prozesu berria eta produktibitate-mailan hobekuntza garrantzitsuak aplikatzeko prozesua bateragarriak egiteko ahalegina, edo, gauza bera dena, tokiko enpleguaren hazkunde osasuntsu eta iraunkorraren aldeko apustua egin du.

Dena den, aldeko jarrera horrek ez du arindu euskal gizarte-ekonomiak forma juridikoei eta ezaugarri lehiakorrei dagokienez ezaugarri duen tradiziozko dualtasuna. Estatistikaren aurreko ekitaldietan horren inguruan identifikatu diren erronkak oraindik indarrean daude. Ildo horretan, aipatu beharra dago funtsean azken urteotan markatu diren joerak mantendu direla, baina horiekin batera ematen direla:

- Proiektu kooperatiboen sorreran nolabaiteko susperraldia sumatzen da, establezimendu berrien sorrerarekin.
- Sozietate Mugatu Laboralen establezimendu kopurua dela medio erregistratutako hazkunde sistematikoaren zikloa bukatu da (hazkunde hori aurreko biurtekoan oso ratio apaletan kokatu zen). Baina egoera hori langile kopuruan izandako hazkundearen bilakaera positiboaren ondorioz konpentsatu egin da, eta establezimendu mota honen sendotze kualitatiboa izan litekeen ziklo bati hasiera eman zaio.

TXOSTEN OROKORRA

0.- SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak Gizarte-ekonomiaren Estatistikaren zazpigarren edizioa garatu du, hain zuzen ere 2006. urteari dagokiona. Lanaren gauzatze exekutiboa Ikertalde Grupo Consultor enpresak burutu du, eta Departamentuaren Estatistika-organo espezifikoak gainbegiratu du.

Lanaren helburua da gizarte-ekonomia EAEko ekonomia testuinguruaren barruan kokatzea eta haren ezaugarriak zehaztea, baita 2004. urtearekin alderatuta izan duen bilakaera azaltzea ere.

2007. urteko azken lau hilabetekoan landa lana burutu zen datu bilketa egiteko asmoz, eta datu horiek estatistikoki erabili ondoren Gizarte-Ekonomiaren Estatistikari buruzko Txosten Nagusia gauzatu zen. Txosten horrek 2004-2006 biurtekoan Gizarte-Ekonomiaren magnitude nagusien bilakaerari buruzko emaitza adierazgarrien berri ematen du.

Egin beharreko denbora konparazioak egin ahal izateko, aurreko urteetako aurkezpen-egitura mantendu da, edukia honako atal nagusietan banatuta:

- Lehenengo atalak biurtekoaren enpresa-dinamikari heltzen dio, **jarduera-sektoreen** arabera, eta kontuan hartzen ditu bai establezimenduen bilakaera bai enpleguaren sorrera eta enpleguaren beraren ezaugarri nagusienak. Horretaz gain, sortutako BEG balioa eta produktibitate-ratioen berri ere ematen du, baita 2006. ekitaldiari dagozkion diru sarreren eta gastuen kontuak ere.
- Bigarrenak aurreko analisiari heltzen dio establezimenduen **forma juridikoaren** arabera: Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak (SAL) eta Sozietate Mugatu Laboralak (SLL). Epe horretan honako alderdiek izandako bilakaera ere aztertzen da: sortutako enplegua, BEGa, eta produktibitate atzemangarria.
- Hirugarrenak, berriz, gizarte-ekonomiaren magnitude nagusien **lurralde irakurketa** egiten du, eta 2004. urtearekin alderatuta izan duten bilakaera jasotzen du.
- Laugarren atalak EAEko gizarte-ekonomiaren produkzio-egituraren **esportazioarekin eta kanpoko merkatuetarako irekitze-mailarekin** zerikusia duten aldagaien azterketa egiten du.

- Bosgarren atalak enpresa establezimenduen **kudeaketari** lotutako aldagai batzuk aztertzen ditu. Horiek horrela, enpresen eta establezimenduen eguneroko kudeaketan erabiltzen diren tresnak eta teknika espezifikoak aztertzen dira, baita enpresen arteko lankidetzarako erabiltzen diren bestelako tresnak edo ereduak ere.
- Seigarren atalak, **beste magnitude ekonomiko batzuen** analisia egiten du, hala nola funts propioak eta errentagarritasun-mailak, ibilgetu material eta immaterialean egindako inbertsioak edo gizarte-ekonomiaren alorreko enpresek jasotako dirulaguntzak.
- Azkenik, zazpigarren atalak 2006. urteko gizarte-ekonomiaren estatistikari buruzko Txosten Nagusiaren laburpena egiten da, zirriborro gisa.

1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN DINAMIKA 2004-2006 BIURTEKOAN

Gizarte-ekonomiaren alorrak bere gain hatzen dituen enpresa establezimenduak EAEn kokatuta daude eta honako forma juridikoa dute: Kooperatibak, Sozietate Anonimo Laboralak eta Sozietate Mugatu Laboralak. 2006. urtean EAeko gizarte-ekonomia **2.387 enpresak osatzen zuten guztira, 3.096 establezimendu eta 63.073 lanpostu biltzen zituztenak.**

1.1 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA.
KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: EAeko BIZTANLERIA LANDUNA 2002-2006

	GIZARTE-EKONOMIA ⁵		Biztanleria landuna EAE
	Establezimenduak	Enpleguak	
2002	2.976	60.615	901.600
2004	3.032	60.733	929.200
2006	3.096	63.073	954.200
	% +2,1	% +3,9	% +2,7

Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2006

2004. eta 2006. urteen artean establezimenduen sorreran bilakaera positiboa antzematen da, %2,1 gutxi gorabehera, 2002-2004 biurtekoan zentro berrien sorrera %1,8 ingurukoa izan baitzen. Dena den, hazkunde-tasa horiek 2000-2002 biurtekoan eman zirenekin alderatuz gero, %15 gutxi gorabehera, nabarmen beherago daude. Neurri handi batean SLL sozietateak sortzeko dinamikak eragin zuen horren tasa handia eskuratzea, 90eko hamarkadaren bukaera aldera xedatu baitzen sozietate horiek sortzeko araudia.

Enpleguaren sorreraren ikuspegitik begiratuta, biurtekoaren emaitzak askoz positiboagoak dira, 2004 eta 2006 epean enplegua %3,9 hazi baitzen. Enplegu garbiaren sorrera 2002-2004 biurtekoan erregistratutakoaren gainetik dago, garai hartan %0,2 besterik ez baitzen izan. Aipatu biurteko horretan ez bezala, 2004-2006 artean alderantziz gertatzen da (%3,9, EAeko biztanleria landunaren %2,7aren aurrean); izan ere, aurreko biurtekoan gizarte-ekonomiako enpleguaren hazkuntza EAeko biztanleria landunaren artean erregistratzen zen enpleguaren hazkuntza baino askoz txikiagoa izan zen.

⁵ Kontuan hartu behar da 2004. urteko datuak doitu egokitu egin direla 2006. urtean eskura dauden datu berriak kontuan hartzeko. Egokitzapen hori, funtsean, Eroski, S. Koop. enpresak emandako establezimendu kopuruari dagokio. 2004ko datuetan Eroski Taldearen barruko merkataritza-sozietateei zegozkien datuak besteekin batera eman ziren, eta horiek forma aldetik ez dira kooperatibak.

1.2 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN HAZKUNDE-TASEN ARTEKO KONPARAZIOZKO ANALISIA: 2003-2004 ETA 2004-2006 BIURTEKOAK. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA: 2002-2006 EPEKO BIZTANLERIA LANDUNA EAEn


	Establezimenduak	Enpleguak	Biztanleria landuna EAE
▲ %04/02	% +1,8	% +0,2	% +3,1
▲ %06/04	% +2,1	% +3,9	% +2,7

Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2006


Aipatu beharra dago hazkunde handiko zenbait urteren ondoren, aurreko biurtekoetan bi digituko hazkunde-tasak ere eman ziren, 2004an gizarte-ekonomiaren alorreko enpleguaren sorreran geldialdia eman zela. 2004-2006 biurtekoaren datuek adierazten dute 2002 eta 2004an enplegua sortzeko joera hautsi bazen ere, oraingo epean berriz ere enplegua sortzen hasi dela, nahiz eta erritmo moderatuan izan.

1.1 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA 1994-2006

ESTABLEZIMENDUAK



ENPLEGUAK




Nahiz eta establezimenduen eta enpleguaren sorreraren dinamika aurreko biurtekoan baino positiboagoa izan dela egiaztatu, egiaztatu egin da, era berean, sektorearen enpresa hazkundearen zati handi bat deslokalizazio prozesuen bitartez bideratzen jarraitu dela. Industriaren eta zerbitzuen alorreko kooperatiba handiek oraindik ere enpresa hazkundera EAetik kanpo establezimendu berriak sortuta burutzen dute. Industria-kooperatiben kasuan, hori oso nabaria da Europako Ekialdeko herrialdeetan, baina gauza bera antzeman daiteke Europar Batasunetik kanpo kokatutako herrialde batzuetan ere, goraka ari diren ekonomietan, Txina edo India, esate baterako, produkzio plantak ireki baitira. Beste alde batetik, antzeman daiteke zerbitzuen alorreko enpresa handiak, batez ere finantza-enpresak, merkatu berrien bila hasi direla Autonomia Erkidegotik kanpoko eremuan⁶.

Nolanahi ere, dagoeneko adierazi dugunez, enplegu eta okupazioaren inguruko datuak alderatuta esan daiteke **gizarte-ekonomia zertxobait dinamikoagoa izan dela EAeko produkzio-egitura osoa baino**.

EAE osoan gizarte-ekonomiaren enpleguak duen pisuari buruz esan behar da 2004ko datuekin alderatuz gero **gizarte-ekonomiaren pisu erlatiboaren hazkunde arina igartzen dela: puntu hamarren bat**, 2002-2004 biurtekoan pisu erlatiboan gertatutako galerarekin kontrastatuz.

1.2 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAK EAeko EKONOMIAN DUEN PISU ERLATIBOAREN BILAKAERA
1994-2006



Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2006

⁶ **Industria-enpresak:** 2008. urtean hainbat enpresa industriak 10 produkzio planta irekiko dituzte Shangain (Txina), guztira 2.000 eta 3.000 langile izango dituztenak, eta Indian produkzio instalazioak egiteko proiektuak ere abian jarriko dira. MCC kooperatibak 57 filial ditu 16 herrialdeetan, eta azpimarratu behar da Europar Batasunean, mendebaldean zein ekialdean, eta Txina eta Mexikon duen presentzia (urteko oroitidazkian jasotako datuen arabera).

Zerbitzu eta finantza enpresak: enpresa horien aurreikuspena da EAetik kanpo, Espainiako lurralde eremuan, %5etik gorako errotioan haztea, establezimenduen batez bestekoari dagokionez.

Azpiratu beharreko beste datu bat honakoa da, alegia 2004-2006 biurtekoan enpleguaren hazkundera handiagoa dela establezimendu berrien sorrera baino, eta horrek zerikusia du enpresen establezimendu kopuruan izan den nolabaiteko jaitsierarekin (1,3ko jaitsiera 2006an eta 1,4koa 2004. urtean). Esan behar da horrekin batera enplegu kopurua gehiago handitu dela zentro kopurua baino, eta hori antzemandako prozesuen ondorioa baino ez da, hau da, establezimendu eta enpresen batez besteko neurria handitu egin da 2004arekin alderatuz gero.

1.3 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINARI BURUZKO ADIERAZLEAK

	2004	2006
Establezimendu/enpresa kopurua	1,4	1,3
Enpresen batez besteko tamaina (Enpleguak)	25,7	26,4
Establezimenduen batez besteko tamaina (Enpleguak)	18,4	20,4

Hala eta guztiz ere, gizarte-ekonomiaren enpresa-egiturak, bera osatzen duten enpresen batez besteko tamainaren arabera, 2004. urteko enpresa-egituraren antzeko profila mantendu du, sektore honetako enpresa errealitateen dualtasuna egiaztatuta. Horiek horrela, ondorengo ezaugarriak antzeman daitezke:

- ▶ Enpresa gehienek —%80 inguru— 15 enplegu baino gutxiago dituzte eta erdia baino zertxobait gehiago ez dira 5 enpleguak kopurura iristen.
- ▶ Mikropymeak duten pisu erlatiboa gero eta handiagoa den arren, mikroenpresa horiek enplegua sortzeko garaian duten garrantzi erlatiboa oso txikia da. 15 langile baino gutxiago dituzten enpresek nekez biltzen dituzte enplegu osoaren %15 (aurreko biurtekoarekin alderatuta bi puntu beherago); 5 enplegutik beherakoak %6,4 baino ez dira. Aitzitik, enpresa handiagoak —100 enplegutik gorakoak— establezimendu guztien %3,5 ez diren arren (aurreko biurtekoan baino puntu erdi gorago) gizarte-ekonomia osatzen duten enpresek sortutako enplegu osoaren %61 gutxi gorabehera hartzen dute bere gain.

Mikroenpresak duen garrantzia gorabehera, gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduen batez besteko neurria nabarmen handiagoa da EAEko gainerako establezimenduei dagokiena baino; izan ere, Eustaten arabera, 2006an establezimendu bakoitzak batez beste 4,7 enplegu zituen, gizarte-ekonomiaren alorreko 20,7 enpleguetatik askoz beherago. Diferentzial hori azaltzeko tamaina handiko enpresek gizarte-ekonomian duten pisu espezifiko handiagoa

aipatu behar da, funtsean kooperatiba forma juridikoa dutenak eta industriaren alorrean kokatzen ditugunak.

1.4 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN TAMAINA
(c.a. eta %v)

	Enpresa kopurua	%v	Enpleguak	%v	Batez besteko tamaina
5 enplegu arte	1.290	54,0	4.020	6,4	3,1
6tik 15era	599	25,1	5.765	9,1	9,6
16tik 50era	335	14,0	9.337	14,8	27,9
51tik 100era	80	3,4	5.616	8,9	70,2
101etik 200era	38	1,6	5.405	8,6	142,2
201etik 500era	26	1,1	8.106	12,9	311,8
500 enplegutik gora	19	0,8	24.824	39,4	1.306,5
GUZTIRA	2.387	100,00	63.073	100,00	26,4


1.1.- GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO ENPLEGUA

Gizarte-ekonomia tradizioz industrialia izan da, baina azkenaldian norabide aldaketa ematen ari da eta hirugarren sektoreara jotzen ari da. 1994. urteaz geroztik gizarte-ekonomiaren estatistikak horren berri jaso du. Datuek erakusten dute 1994. urtetik aurrera industria-enpleguaren pisu erlatiboa etengabe murrizten ari dela, are gehiago, industria-sektorearen enplegu kopuruak 2002-2004 biurtekoan zenbaki absolutuetan behera egin zuela ikus daiteke.

Hala eta guztiz ere, gizarte-ekonomiaren profila oraindik industrialia dela esan behar da, EAEko ekonomia osoan erregistratutakoa baino nabarmenago. Gainera, nahiz eta enplegu mota horrek hirugarren sektoreko enpleguaren mesedetan pisu erlatiboa galtzeko aipatu joera mantendu, 2004-2006 epean industriaren alorreko enpleguaren sorreran suspertzea gertatu dela antzeman daiteke.

Aurreko kontsiderazio orokorrak kopuruetan emanez gero, egiazta daiteke zerbitzuen sektorean enplegua %5,2 handitu dela 2004arekin alderatuz gero (2002-2004 biurtekoari dagokion hazkunde-maila baino zertxobait apalagoa, horretan hazkunde-tasa %8,8 ingurukoa izan baitzen). Zerbitzuen sektorearen hazkunde-tasa industria-sektoreak erakutsitakoa baino handiagoa da. Nahiz eta 2004-2006 epean industria-sektorea hazi, aurreko biurtekoan termino absolutuetan enplegua murriztu egin zela gogorarazi behar da, %3,2ko hazkunde-tasa izan du enpleguaren sorrerari dagokionez, zerbitzuen sektorean erregistratutako tasaren azpitik, beraz.

1.3. irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO INDUSTRIA-SEKTOREAREN ETA HIRUGARREN SEKTOREAREN ENPLEGUAREN BILAKAERA
(Hazkunde-tasak 2003-2004 eta 2004-2006 biurtekoetan)



Bilakaera horren ondorioz 2004. eta 2006. urteen artean berriz ere zerbitzuen sektorearen pisu erlatiboa handitu egin zen (6 puntu hamarren biurtekoan) eta jaitsi industriaren pisu erlatiboa (4 puntu hamarren). Nolanahi ere, 2006 ekitaldian industria EAEko gizarte-ekonomiaren alorreko enpleguaren zati nagusia izaten jarraitu du oraindik ere, enplegu osoaren %51,3, zerbitzuen sektoreak bere gain hartzen duen %45eko kopuruaren gainetik.


Bere aldetik, eraikuntzaren sektorearen eta lehen sektorearen pisu espezifiko oso antzerakoa da 2004 eta 2006an, biek batera gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren %3,7 biltzen baitute.

1.5 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, 2004 ETA 2006an (c.a. eta %v)

	2004		2006	
	C.a.	%v.	C.a.	%v.
Lehen sektorea	122	% 0,2	133	% 0,2
Industria	31.338	% 51,6	32.350	% 51,3
Eraikuntza	2.308	% 3,8	2.229	% 3,5
Zerbitzuak	26.965	% 44,4	28.361	% 45,0
GUZTIRA	60.733	100,0	63.073	100,0

Euskal ekonomiaren testuinguruan gizarte-ekonomiaren profila, oro har, nabarmen industrialagoa da: enpleguaren %51,3, euskal ekonomia osoaren %25,6aren aurrean. Eta horrekin batera eman beharreko beste datu bat honakoa: gizarte-ekonomian zerbitzuen sektoreak askoz garrantzi txikiagoa du (enpleguaren %45 gizarte-ekonomian, ekonomia osoaren %64,6aren aurrean), eta egoera hori eraikuntzaren sektorean ere ematen da (enpleguaren %3,5 doi-doi, euskal ekonomia osoaren %8,4aren aurrean).

1.4 irudia
ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETAREN KONPARATIBA, EAEko EKONOMIAN ETA GIZARTE-EKONOMIAN. 2006




Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2006

Egia esan, gizarte-ekonomiari lotutako industriaren pisua erabakigarria da EAEko ekonomia osorako. Ildo horretan, gizarte-ekonomiaren alorreko industria-sektoreak enplegu osoaren

%13,2 hartzen du bere gain, zerbitzuen sektorean antzemandako %4,6 horretatik askoz gorago. Kopuru hori %2,8ra jaisten da eraikuntzan eta %1era lehen sektoreari dagokionez.

Aurkeztutako kopuruek adierazten duten bezala, nahiz eta gizarte-ekonomia hirugarren sektorerako norabide aldaketa ematen hasia egon, esan beharra dago prozesu horren intentsitatea oraindik oso txikia dela. Gertatzen ari den bilakaera horrek ez du aldaketa zorrotzik ekarri. Izan ere, 2004 eta 2006 artean EAEko sektoreen arabera biztanleria landunaren bilakaerarekin alderatuz gero, ikus liteke gizarte-ekonomiaren pisua handitu egin dela sektore guztietan, hirugarren sektorean izan ezik. Epe horretan gizarte-ekonomiaren sektore horretako pisu espezifikoak puntu hamarren bat jaitsi da.

1.5 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN GARRANTZI ERLATIBOA EAEko EKONOMIAN (Enpleguaren pisu erlatiboa) 2004-2006



Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2006

Jardueraren analisi zehatzagoa egin daiteke, horretarako enpresa-egituraren eta gizarte-ekonomiaren barruan pisu espezifiko handiagoa duten adarrak kontuan izanda. Horri dagokionez, ondorengo oinarritzko ezaugarriak azpimarratu behar dira:

- Industriaren barruan adar nagusienak honakoak dira: elektrizitate, elektronika eta optikaren alorreko materiala eta ekipoak (gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren %14,5), metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa (%12,6) eta makineriaren eta ekipo mekanikoen fabrikazioa (%10). Hiru jarduera-adar horiek batera enplegu osoaren %37,1 biltzen dute.
- Zerbitzuen sektorearen barruan, merkataritza da jarduera-adar garrantzitsuena termino kuantitatiboetan hitz eginda, eta enplegu osoaren %16 biltzen du, aurreko biurtekoan lortutako ehunekoaren antzera. Azpimarratzekoa da, era berean, hezkuntzaren adarraren pisu espezifikoak, enpleguaren %10 hain zuzen ere. Onibar- eta alokairu-

jarduerak, enpresei ematen zaizkien gainerako zerbitzuekin batera, hirugarren lekuan agertzen dira. Enplegu osoaren %5,3 biltzen dute.

Oro har, kontuan hartutako industria eta zerbitzuen adar guztiek Euskadiko gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren bi heren baino gehiago hartzen dute bere gain.

1.6 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN EGITURA, JARDUERA-ADARREN ARABERA. 2006
(c.a. eta %v.)

	GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERA-ADARRAK	
	c.a.	% v.
LEHEN SEKTOREA	133	%0,2
ATERATZE-INDUSTRIAK	9	%0,01
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	32.342	%51
♦ ELIKAGAI, EDARI ETA TABAKOAREN INDUSTRIA	902	%1,4
♦ EHUNGINTZA ETA JANTZIGINTZA	200	%0,3
♦ EGURRAREN ETA KORTXOAREN INDUSTRIA	1.392	%2,2
♦ PAPERAREN INDUSTRIA; ARGITALPENAK, ARTE GRAFIKOAK ETA EUSKARRI GRABATUEN ALDAKIAK	859	%1,4
♦ OINARRIZKO INDUSTRIA	2.997	%4,7
♦ METALGINTZA ETA PRODUKTU METALIKOEN FABRIKAZIOA	8.016	%12,6
♦ MAKINERIA ETA EKIPO MEKANIKOAK FABRIKATZEAREN INDUSTRIA	6.233	%10
♦ MATERIAL ETA EKIPO ELEKTRIKO, ELEKTRIKO ETA OPTIKOAREN INDUSTRIA	9.181	%14,5
♦ HAINBAT MANUFAKTURA-INDUSTRIA MOTA	2.562	%4
ERAIKUNTZA	2.229	%3,5
MERKATARITZA; MOTORDUN IBILGAILUAK, MOTOZIKLETAK ETA ZIKLOMOTOREAK, ETA SALGAI PERTSONALAK ETA ETXEAN ERABILTZEKOAK KONPONTZEA	9.963	%16
OSTALARITZA	2.046	%3,2
GARRAIOA, BILTEGIRATZEA ETA KOMUNIKAZIOAK	1.046	%1,7
FINANTZA-BITARTEKOTZA	2.106	%3,3
ONIBAR-JARDUERAK ETA ALOKAIRU-JARDUERAK; ENPRESA ZERBITZUAK	3.342	%5,3
HEZKUNTZA	6.299	%10
OSASUN- ETA ALBAITARITZA -JARDUERAK, GIZARTE - ZERBITZUAK	1.379	%2,2
BESTELAKO GIZARTE -ZERBITZUAK ETA KOMUNITATEARI EMANDAKO ZERBITZUAK; ZERBITZU PERTSONALAK	2.179	%3,5
GUZTIRA	63.073	%100,00

1.2.- GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUAREN EZAUGARRI NAGUSIENAK

1.2.1.- Generoa eta adina

Euskal gizarte-ekonomiaren enpleguaren izaera nagusiki industrial da tradizioz, eta, hori dela eta, enpleguan gizonezkoen presentzia handiagoa da. Enpleguen %58,6 gizonezkoek betetzen dituzte.

Dena dela, adierazi behar da gizarte-ekonomiaren enpleguetan emakumezkoen presentziaren pisu erlatiboa hazten ari dela, eta 2004an %36,2 izatetik 2006an⁷ %41,4 izatera pasa da.

Jarduera-sektoreen arabera, tradizioz emakumeen presentzia zerbitzuen sektorean da nagusi, hiru langiletatik bi emakumezkoak baitira. Gainerako sektoreetan, berriz, emakumeak gutxiengoa dira, industriaren %24,8ko maximoarekin. Hori bereziki nabarmena da eraikuntzaren sektorean, gizonezkoen enplegua enplegu osoaren %90 baita.

1.7 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, GENEROAREN ARABERA
(%v)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	58,6	77,8	75,2	90,5	36,4
Emakumezkoak	41,4	22,2	24,8	9,5	63,6

Zerbitzuen sektorearen pisua txikiagoa bada ere, EAE osoarekin alderatuz gero, 2006an emakumezkoen presentzia gizarte-ekonomian EAEko ekonomia osoan antzematen den presentziaren antzeko samarra da: %41,4 eta %42,3, hurrenez hurren. Horretaz gain, antzematen da diferentzia hori gero eta txikiagoa dela hirugarren sektorera jotzeko prozesuaren ondorioz.

⁷ Komeni da adieraztea ehunekoak ezin direla era zorrotzean alderatu aurreko edizioetako emaitzekin. Emaitzek ez dute magnitude ekonomikoek goratzeko jarraitzen duten prozedura bera jarraitzen, eta ez dugu erregistro izaerako daturik.

Enplegua sexuaren eta sektorearen arabera banatzeari dagokionez, emakumezkoen pisu erlatiboa gizarte-ekonomian EAEn baino handiagoa da, eta lehen sektorea da salbuespen bakarra. Hirugarren sektorean, gizarte-ekonomiak euskal ekonomian antzemandako emakume kopuruari baino gehiagori ematen dio lana: %63,6 eta %56,5, hurrenez hurren. Gauza bera gertatzen da industrian (%24,8 eta %18,1) eta eraikuntzan (%9,5 eta %6,7). EAEko okupazio osoan emakumezko gehiago egotearen arrazoia da soilik gizarte-ekonomiak hirugarren sektorerara jo izana.

1.8 taula
EAEko EKONOMIAKO JARDUERAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, GENEROAREN ARABERA. 2006 (%v)

	GUZTIRA	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Gizonezkoak	57,7	75,3	81,9	93,3	43,5
Emakumezkoak	42,3	24,7	18,1	6,7	56,5

Iturria: INE, Biztanleria aktiboaren inkesta, jardueraren arabera 2006

Forma juridikoaren araberrako genero azterketak erakusten du sozietate motaren arabera egoera zertxobait desberdina dela. Horiek horrela, emakumezkoen presentzia handiena kooperatibetan ematen da. Hori emakumezkoek kontsumo eta kreditu kooperatibetan duten presentzia garrantzitsuari zor zaio, %45,1 hain zuzen ere.

Sozietate Laboralek izaera industrialak dute nagusiki, eta, hori dela eta, emakumezkoen enpleguaren pisu erlatiboa txikiagoa da: SAL motako sozietateetan lau langiletatik bat bakarra da emakumezkoa, %25,1, eta SLL motako sozietateetan ehuneko hori %31,6an dago.

1.9 taula
IZAERA JURIDIKOAREN ARABERAKO BANAKETA, GENEROA KONTUAN HARTUTA 2006 (%v)

	GUZTIRA	Kooperatibak	SAL sozietateak	SLL sozietateak
Gizonezkoak	58,6	54,9	74,9	68,4
Emakumezkoak	41,4	45,1	25,1	31,6

Enpresetako zuzendaritza eta kudeaketa organoetan emakumezkoek duten parte hartzea kontuan hartzen badugu, egiazta daiteke maila horiek oraindik txikiagoak direla, enpresen barruko emakumezkoen enpleguaren pisua baino nabarmen txikiagoak, gainera.

Horiek horrela, zuzendaritza kontseilu eta administrazio kontseiluetako kide guztiei dagokienez, emakumezkoen batez bestekoa %25,1 da, emakumezkoek enpresa horietan duten presentziazik beherako kopurua. Organo horietan zerbitzuen jarduera-sektorea da emakumezkoen pisu erlatibo handiena duena, %33,8ko parte hartzearekin, eta hori emakumezkoek okupatzen dituzten enpleguen %63,6tik oso urruti dago.

1.10 taula
JARDUERA-SEKTOREAREN ETA GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA, GIZARTE-EKONOMIAREN
ZUZENDARITZA KONTSEILU ETA ADMINISTRAZIOKO KONTSEILUETAN (%v)

	GUZTIRA Kontseilua	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzua
Gizonezkoak	74,9	86,7	83,9	86,6	66,2
Emakumezkoak	25,1	14,3	16,1	13,4	33,8

Adin tarteen araberako analisiak erakusten du 30 eta 45 urte bitarteko biztanleei dagokien enpleguaren pisu erlatiboaren nolabaiteko hazkundea eman dela. Adin talde horren parte hartzea 1,2 puntutan handitu da 2004ari dagokionez, eta euskal gizarte-ekonomiaren enpleguaren zatirik nagusia osatzen du, 2006. urtean guztira %42,7 izanik. Aitzitik, gazte eta zaharrenean adin segmentuek garrantzia erlatiboa galdu dute. 30 urtetik beherako pertsonen enplegu osoaren %24,7 baino ez dira, 54 urtetik gorako pertsonen %32,6aren azpitik.

Jarduera-sektoreen arabera, enpleguaren banaketa adin tarte guztietan antzekoa da, baina kasu guztietan batez ere 30 eta 45 urte bitartekoak dira nagusi. Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da zerbitzuen sektorean gazteen presentzia erlatiboa handiagoa dela (%28,4), eta gora egin duela 45 urtetik gorakoek industrian (%37,7) eta eraikuntzaren sektorean (%35,2) duten parte hartzea.

1.11 taula
ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, ADINAREN ARABERA
(%h) 2006

	GUZTIRA	30etik behera	30 – 45 bitarte	45etik gora
Lehen sektorea	100	14,2	65,8	20,0
Industria	100	21,9	40,3	37,7
Eraikuntza	100	19,9	44,9	35,2
Zerbitzuak	100	28,4	45,3	26,3
GUZTIRA	100	24,7	42,7	32,6

Forma juridikoa kontuan hartuz gero, antzematen da 45 urtetik gorako pertsonen pisu espezifikoa handiagoa dela SAL motako sozietateen kasuan, adin tarte nagusia osatzen baitute, %45,6arekin. Kooperatibetan eta SLL sozietateetan enplegua adinaren arabera nola dagoen banatua aztertzerakoan, berriz, 30 eta 45 urte bitarteko pertsonen nagusitasuna sumatzen da, baina proportzio hori SLL sozietateetan oraindik handiagoa da, %50,4, kooperatibek duten %42,8aren aurrean.

1.12 taula
ENPLEGUAREN BANAKETA ADINAREN ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (% h). 2006

	GUZTIRA	30etik behera	30 – 45 bitarte	45etik gora
S.KOOP	100	26,9	42,8	30,3
SAL sozietateak	100	16,6	37,8	45,6
SLL sozietateak	100	16,4	50,4	33,2
GUZTIRA	100	24,7	42,7	32,6

Beste alde batetik, gora egin du langile etorkinek gizarte-ekonomian hartutako enpleguaren ehunekoa. 2006an %5aren ingurukoa zela esan daiteke, aurreko biurtekoan baino 4 puntu gorago. Minusbaliotasunen bat duten pertsonen proportzioa %2⁸ gutxi gorabehera da.

Kolektibo horien pisu espezifikoak enpresa txikietan da handixeagoa, eta, atzerritarren kasu espezifikoan, eraikuntzaren sektorean.

1.2.2.- Kontratu bidezko harreman motak

2006. urtean sozietateen kolektiboak gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren %66 biltzen zuen. Maila hori altuagoa zen 2004. urtean erregistratutakoa baino, orduan %59 baitzen.

Gainerako enpleguaren %33,9 soldatapeko langileei dagokie. Soldatapeko langileen %12,4 finkoak dira eta %21,6 behin-behinekoak. Antzematen da behin-behineko langileen kolektiboaren pisu erlatiboak behera egin duela, 2004an %24,3 izatetik biurteko honetan %21,6 izatera pasa baita. Dena den, esan beharra dago behin betiko soldatapeko langile finkoen pisu erlatiboa ere 4 ehuneko jaitsi dela.

Bazkideek kooperatibetan dute pisu espezifiko handiena, %69,3 hain zuzen ere. Enpleguaren ezegonkortasuna, berriz, SAL sozietateei dagokie neurri handiago batean, horietan behin-behineko soldatapeko langile kopurua %25,8 baita, SLLetako %22,8ko eta kooperatibetako %20,7ko kopuruen gainetik. Hori, neurri handi batean, kooperatiben espezifikotasunaren eta araudiaren beraren ondorioa da, baina SAL eta SLL sozietateen barruan dauden enpresak batez beste txikiagoak izatearen ondorio ere bada.

Nolanahi ere, soldatapeko langileen artean behin-behineko langileak beti dira nagusi, batez ere sozietate kooperatibetan.

⁸ Aurretik kontuan hartu diren beste aldagai batzuen kasuan bezalaxe, aldagai honetan ere ez dago erregistro daturik.


1.13 taula
ENPLEGUAREN BANAKETA, KONTRATU BIDEZKO HARREMANETAN ETA ESTABLEZIMENDUAREN FORMA
JURIDIKOAREN ARABERA. 2006 (%h)

	GUZTIRA	Kideak	Soldatapekoak	Finkoak	Behin-behinekoak
S.KOOP	100	69,3	30,7	10,0	20,7
SAL sozietateak	100	50,3	49,7	23,9	25,8
SLL sozietateak	100	59,2	40,8	18,0	22,8
GUZTIRA	100	66,0	34,0	12,4	21,6

Azkenaldiko bilakaerak erakusten du kooperatibetan zein SAL motako sozietateetan sozietate kolektiboaren pisu erlatiboa 2006an handiagoa dela 2004an izan zuena baino, eta horrekin aldatu egin zela epe luze batean sozietateetako langileen kopurua murrizteko joera. Hala eta guztiz ere, SLL sozietateen kasuan, hain zuzen ere epe luzera begira bazkide kopurua mantentzen zuela ematen zuen sozietate mota bakarra, 2004 eta 2006 artean kolektibo horren nolabaiteko jaitsiera eman dela sumatzen da, eta horrekin batera soldatapeko enpleguaren hazkunde erlatiboa ere bai.

Nahiz eta 2004 eta 2006 artean enpleguan langile bazkideen presentzia suspertu, kopuruak oraindik nabarmen beherago daude 1996. urtean erregistratutako maila gorenekin alderatuz gero.

1.6 irudia
SOZINETATE KOLEKTIBOAREN PISU ERLATIBOA (Portzentajea enplegu osoarekiko)
. 1996-2006



Jarduera-sektorea kontuan hartuz gero, egiaztatu da bazkideen kolektiboaren pisua handiagoa dela industria-enpresetan (%71,8), gainerako sektoreetan %60 inguruan baitago. Baina behin-behineko langileen presentzia handiagoa da eraikuntzan eta zerbitzuen sektorean, %23 eta %24 bitarteko kopuruan.

1.14 taula
ENPLEGUAREN BANAKETA KONTRATU BIDEZKO HARREMANETAN ETA ESTABLEZIMENDUAREN
JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2006 (%h)

	GUZTIRA	Kideak	Soldatapekoak	Finkoak	Behin-behinekoak
Lehen sektorea	100	57,2	42,7	32,3	10,4
Industria	100	71,8	28,2	8,4	19,8
Eraikuntza	100	60,6	39,4	15,5	23,9
Zerbitzuak	100	59,7	40,3	16,8	23,5
GUZTIRA	100	66,0	34,0	12,4	21,6

1.3.- GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BEG BALIOA ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA

1.3.1.- BEGaren dinamika 2004-2006 biurtekoan

2006. urtean gizarte-ekonomiaren BEGa 2.943 eurokoa izan zen. **Horrek termino nominaletan hazkunde handia suposatzen du, 2004an sortutako 2.469 milioi euroekin alderatuz gero: %19.** Datu hori oso bestelakoa da 2004an 2002. urtearekiko eman zen mantsotze prozesua kontuan hartuz gero.

2004-2006 biurtekoan BEG balioak izan duen bilakaera onak zerikusia du industriaren BEG balioak izandako joerekin, hain zuzen ere termino nominaletan %16,5ean handitu baitzen 2004. urteari dagokionez. Baina, batez ere, zerbitzuen sektorean izandako hazkunde handiak izan zuen zerikusia, 2004 eta 2006 artean termino nominaletan %24 hazi baitzen.

Termino nominaletan BEG balioak izan duen hazkunde nabarmen horren zergatia, neurri handi batean honako bi faktoreek azaltzen dute:

- ◆ **Industriaren alorreko enpresa handiek izandako emaitza hobekak**, 2004ko ekitaldian erregistratutakoak baino hobekak, urte horretan enpresa handi askok galerak izan baitzituzten.
- ◆ **Bigarren sektorean eta finantza-sektoreetan pisu handiagoa duten enpresek sortutako BEG balioaren hazkunde handia.** Enpresa horiek 2004 eta 2006an erregistratutako hirugarren sektoreko BEG balioaren hazkundeari zegozkion 3 eurotik 2 euro inguru sortu zuten. Zerbitzuen sektorearen bi kooperatiba nagusien efektu positiboa deskontatuta, 2004 eta 2006an BEG balioaren bilakaera askoz arinagoa izango zen eta biurtekoan enpleguak izan zuen bilakaerarekin bat etorriko zen.

1.15 taula
BEGaren ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA (Ohiko prezioak)

Sektoreak	Hazkunde-tasa
Industria	%+ 16,5
Zerbitzuak	%+24,0
GUZTIRA*	%+19,2

* Lehen sektorea eta eraikuntza ere barne daude

Kontuan hartuta azken bi urteotan zerbitzuen sektorearen BEG balioa gehiago hazi dela, antzematen da 2004 eta 2006 artean gizarte-ekonomian hirugarren sektoreko BEGaren pisu erlatiboa hazi egin dela, industriaren BEGaren kaltetan. Mugimendu hori koherentea da 1994an azterketa egiten hasi zenetik erregistratzen ari den hirugarren sektorerantz jotzeko prozesuarekin. Era horretan, metatutako BEG balioan zerbitzuen sektoreak duen pisua %36tik %37,4ra pasa da 2004 eta 2006 artean.

1.16 taula
GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINAREN (BEG) ARLOZ ARLOKO HAZKUNDEA. 2004 ETA 2006 URTEETAKO KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA (c.a. euro kopurua, milatan, % v.) (Ohiko prezioak)

Sektoreak	2004		2006	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	5.775	%0,2	3.880	%0,1
Industria	1.507.727	%61,0	1.757.119	%59,7
Eraikuntza	67.060	%2,7	81.066	%2,8
Zerbitzuak	889.220	%36,0	1.101.580	%37,4
GUZTIRA	2.469.782	100	2.943.644	100

Dena den, azkenaldiko bilakaera horrek ez du aldaketarik ekarri gizarte-ekonomiaren industria-enpresek burutzen duten nagusitasunezko paperean. Hortaz, gizarte-ekonomiaren establezimenduek sortutako BEGaren %59,7 industriak jasotzen du oraindik ere.

Industriaren kasuan sektorekako Barne Produktu Gordinean parte hartze sektorialak, gainera, gainerako sektoreen mailak laukoiztu egiten ditu. Era horretan, 2006. urtean EAEko industriak sortutako 100 euroetatik 10,7 euro gizarte-ekonomiari zegozkion, zerbitzuek sortutako 3,3 euro eta eraikuntzaren 1,6 euroen gainetik.

1.17 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN PARTE HARTZEA ARLOZ ARLOKO BARNE PRODUKTU GORDINEAN. 2004-2006ko KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA

	2004	2006
Industria	10,9	10,7
Eraikuntza	1,6	1,6
Zerbitzuak	3,0	3,3
GUZTIRA	5,1	5,3

2004 eta 2006. urteen artean EAEko gizarte-ekonomiaren BEG balioaren pisu erlatiboak izan duen bilakaera azaltzeko, gizarte-ekonomiaren sektorekako BEGaren bilakaeraz gain euskal ekonomiaren BEGaren dinamika bera ere kontuan hartu behar da. Daturik aipagarriena da zerbitzuen sektorearen parte hartze erlatiboaren hazkundera, euskal ekonomia osoan sektorerako Barne Produktu Gordinaren hazkundera oso handia den testuinguru batean. 2004an sektore horretan gizarte-ekonomia BEG osoaren %3 izatetik 2006an %3,3 izatera pasa zen. Beraz, ekonomia orokorra baino erritmo azkarragoan hazi zen.

1.18 taula
BARNE PRODUKTU GORDINA ETA HORREN OSAGAIK URTEAREN ARABERA EAEn. ESKAINTZA ETA
ESKAERA. OHIKO PREZIOAK. URTEEN ARTEKO ALDAKETA-TASAK (%) 2004-2006(a)

	2004/2005	2005/2006
Industria	7,7	7,4
Eraikuntza	9,4	10,0
Zerbitzuak	6,6	7,3
BEG ohiko prezioei	7,0	7,5

Iturria: EUSTAT, 2006

1.3.2.- Produktibitate antzemangarriaren bilakaera 2004-2006 biurtekoan

Gizarte-ekonomiaren establezimenduen batez besteko produktibitatea enplegu bakoitzeko 46.667 eurokoa da. 2004. urteko batez besteko produktibitateari dagokionez kopuru horrek hazkunde handia ekarri du, %16 ingurukoa termino nominaletan hitz eginda.

Produktibitate antzemangarria sektoreen arabera kontuan hartuta, termino nominaletan desberdintasun handiak antzeman daitezke 2004. urtearekiko. Desberdintasun horiek, kasu guztietan, BEGari dagokionez enpleguak izandako hazkunde motelagoari uztartuta daude. Daturik esanguratsuen da zerbitzuen sektorean produktibitateak izandako hazkunde handia, 2004 eta 2006 artean termino nominaletan %18 hazi baita. Hazkunde hori handiagoa da industria-sektoreak izandako %12,5eko hazkunde handia baino. Hala eta guztiz ere, produktibitate antzemangarriari buruz ari garela, hazkunderik handiena eraikuntzaren sektoreari dagokio, %24arekin. Baina 2004an eraikuntzaren sektoreak lortutako produktibitate-maila oso urruti dago industriak lortutako kopurutik, eta oraindik ere zerbitzuaren sektoreak lortutakoaren azpitik dago.

1.19 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO SEKTOREEN PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIAREN BILAKAERA
2004-2006 EPEAN. (BEG euro kopurua, milatan/Enplegatua. Ohiko prezioak).

	2004	2006
Industria	48	54
Eraikuntza	29	36
Zerbitzuak	33	39
GUZTIRA	40	47


Nolanahi ere, epe horretan BEGaren hazkundera enpleguaren hazkundera baino handiagoa izateagatik, batez ere zerbitzuen sektorean, gizarte-ekonomiaren lehiakortasun-mailak nabarmen egin du gora 2004 eta 2006 artean lortutakoarekin alderatuz gero. Ildo horretan, finantzen sektoreko kooperatiba handien errentagarritasuna eta mozkin tartekak (bereganatutako aurrezkien zein kreditu eskaeren hazkundera) eta banaketarekin zerikusia dutenenak handitu dira, batez ere.

1.4.- GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZEN KONTUAK

Enplegua BEG balioa baino motelago hazi den testuinguru batean, gizarte-ekonomiaren emaitzak 2006ko ekitaldian suspertu egin ziren eta bilakaera ona erakutsi zuten, 2004. urtearekin alderatuta eta **termino nominaletan hitz eginda %43** baino gehiago hazi baitziren. Hazkunde hori **aurreko biurtekoan erregistratutakoa baino askoz handiagoa da**. Ildo horretan, 2004ko mozkinak 2002an lortutakoak baino %10,1 gorago zeuden.

Cash-Flow edo kaxaren fluxuak deskribatutako joera ere positiboa da. Magnitude hori 2006an **2004an erregistratutakoaren gainetik kokatu zen, %20 gorago ia termino nominaletan**. 2002 eta 2004 artean Cash-Flow izenekoak %6,9 inguru baino ez zen hazi.

1.7 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN EMAITZEN ETA CASH FLOWAREN BILAKAERA. 2004-2006
(c.a. euro kopurua, milatan)



Termino agregatuetan, 2006. urtean gizarte-ekonomia osatzen zuen enpresa multzoak sortutako mozkina 527 milioi eurokoa izan zen. Bere aldetik, Cash-Flow edo kaxa fluxuek sortutako kopurua 984 milioi euro izan zen.

Kopuru oso hori azaltzeko, neurri handi batean, industria-sektoreak sortutako mozkinak hartu behar dira kontuan, %52,1, aurreko biurtekoan erregistratutako kopurua baino lau puntu handiagoa izan da eta. Zerbitzuen sektoreak kopuru osoaren %45,9 erregistratu zuen, eta, hortaz, %5,5 galdu zuen. Cash-Flow globalaren zergatia hiru bostenetan industriak sortutako kaxa fluxuetan aurki liteke.

1.20 taula
MOZKINEN ETA CASH FLOW aren BANAKETA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA 2006 (%v)

	Emaitzak	Cash -Flow
Lehen sektorea	0,1	0,2
Industria	52,1	61,0
Eraikuntza	1,9	1,6
Zerbitzuak	45,9	37,3
GUZTIRA	100	100

1.21 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN SARREREN ETA GASTUEN KONTUAK 2004-2006 (%v. eta bilakaera)

	C .a.	%v.	2004-2006ko BILAKAERA
DIRU SARRERAK			
70 Salmenta garbiak	9.523.956.917	91,5	-0,5
Obren eta produktu bukatuen eta fabrikazio prozesuan dauden			
71 produktuen izakinen aldaketa	43.442.342	0,4	-0,3
73 Enpresarentzat egindako lanak	64.920.671	0,6	0,2
74 Ustiapenari ohiko dirulaguntzak	201.504.939	1,9	-0,1
75 Bestelako diru sarrera osagarriak	307.046.161	2,9	0,4
76 Finantza-sarrerak	118.422.713	1,1	-0,1
77 Ibilgetutik eratorritako etekinak eta ez ohiko sarrerak	120.244.527	1,2	0,1
79 Gehiegizko hornidura keta aplikazioak	31.902.654	0,3	0
SARRERAK GUZTIRA	10.411.440.923	100	0
GASTUAK			
60 Erosketa garbiak	5.855.827.175	59,2	1,1
61 Salgaien eta lehen gaien izakinen aldaketa	-32.184.151	-0,3	0,2
62 Kanpoko zerbitzuak	1.172.078.932	11,9	-0,7
63 Jarduerari lotutako zergak	48.018.872	0,5	0,1
64 Langileen gastuak	1.980.644.217	20	-0,8
65 Bestelako kudeaketa-gastuak	122.534.786	1,2	0,4
66 Finantza-gastuak	201.632.374	2	0
67 Ibilgetutik eratorritako galerak eta ez ohiko gastuak	78.797.870	0,8	0,4
68 Ekitaldiko amortizazioak	330.852.181	3,3	-0,5
69 Hornidura zuzkidurak	126.042.405	1,3	-0,3
GASTUAK GUZTIRA	9.884.244.660	100	0

Bazkideek kooperatiben barruan egiten dituzten ekarpenen interes kontuei espezifikoki dagokienez, finantza-gastuen barruan sartua (66 kontua), kontu horrek 2006an gizarte-

ekonomiaren alorreko establezimenduen multzoan lortu duen kopurua 48 milioi eurokoa da, finantza-gastuen %24,8. Eta kontu horren pisu erlatiboak finantza-gastu guztiekiko tamaina handiena zerbitzuen sektorean hartzen du (%32,1, eraikuntzan %29,2 eta industrian %19,3 den bitartean).


1.22 taula
BAZKIDEEK KOOPERATIBETAN EGINDAKO EKARPENEN INTERESAK ETA FINANTZA-GASTUEN GAINEKO
PISU ERLATIBOA (66 KONTUA) (c.a. eurotan eta %h)

Jarduera-sektorea	Gastuak guztira		Ekarpenen interesak	
	c.a.	%h	c.a.	%h
Lehen sektorea	356.295	100	0	0
Industria	108.055.402	100	20.880.634	19,3
Eraikuntza	1.529.655	100	447.042	29,2
Zerbitzuak	81.704.535	100	26.244.803	32,1
GUZTIRA	191.645.886	100	47.572.479	24,8

2.- GIZARTE-EKONOMIAREN PROFIL JURIDIKOA

2.1.- ESTABLEZIMENDUAK ETA ENPLEGUAK

Gizarte-ekonomiaren profila, enpresen forma juridikoari dagokionez, aurreko ekitaldietako profilaren oso antzekoa da. Kooperatiben protagonismo espezifikoa mantentzen da. 2006an kooperatibek gizarte-ekonomiaren alorreko enpleguen %79 biltzen zuten, sozietate laboralei zegokien %21aren gainetik.



Establezimendu kopuruari dagokionez, 2004 eta 2006 artean kooperatibek hazkunde-tasa handia mantendu dute, %8koa. Horrekin sendotu egin da gizarte-ekonomiaren barruan establezimendu kopuruari zegokionez lehendik zuten nagusitasuna: 2006an establezimenduen %59,9 titularitate juridiko hori zuten.

Sozietate laboralen testuinguruan aipagarriena da SLL motako sozietateen hazkunde prozesuan geldialdia eman dela, eta hori 2002-2004 biurtekoan ere, zegoeneko, antzeman zitekeela. Era berean, SAL motako sozietateen kopuruaren jaitsiera ere finkatu egin da. Oro har, sozietate laboralek 2004 eta 2006 artean 2004an zeuden establezimenduetatik %5,6 inguru galdu dute.

2.1 taula
2004-2006an GIZARTE-EKONOMIAREN ESTABLEZIMENDUEK IZANDAKO BILAKAERA , FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (c.a., % v.)

	2004		2006		%Δ06/04 (1)
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	
Kooperatibak	1.717	%56,6	1.855	%59,9	%8,0
SLak	1.315	%43,4	1.241	%40,1	%-5,6
SALak	508	%16,8	437	%14,1	-%14,0
SLLak	807	%26,6	804	%26,0	%-0,4
GUZTIRA	3.032	100,0	3.096	100,0	+2,1%

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundera ehunekotan adierazita.

Era berean, kooperatibek bilakaera positiboa izan dute enpleguaren sorrerari dagokionez. 2003-2004 biurtekoan %0,5eko tasa positiboa eman zen eta 2004-2006 artean aurreko biurtekoan erregistratutako bilakaera %4,1 puntutan gainditu dute.

SAL motako sozietateek ere enpleguari dagokionez gizarte-ekonomian zuten garrantzi erlatiboa galtzen joan dira. 2004an zituzten 8.563 enpleguetatik, gizarte-ekonomia osoaren %14,1 bere gain hartuta, 2006. urtean 8.238 enplegu gelditzen ziren, gizarte-ekonomia osoaren %13,1. Horrek enpleguan %3,8ko galera izan zela esan nahi du, kooperatiben sektorean izandako okupazio hazkundearekin eta SLL sozietateetako enpleguan eman zen %16,1eko mozkinekin ez bezala. SLL sozietateen bilakaera positiboa dela eta, sozietate laboralek oro har hartuta azkeneko bi urteetan enpleguan %2,9 irabazi dute.

2.2 taula
2004-2006an GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEK IZANDAKO BILAKAERA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. (c.a.,% v.)

	2004		2006		%▲06/04 (1)
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	
Kooperatibak	47.797	%78,7	49.760	%78,9	%+4,1
SL	12.936	%21,3	13.313	%21,1	%+2,9
SAL	8.563	%14,1	8.238	%13,1	%-3,8
SLL	4.373	%7,2	5.075	%8,0	%+16,1
GUZTIRA	60.733	100,0	63.073	100,0	 %+3,9

(1) Kopuru absolutuek erregistratutako hazkundera ehunekotan adierazita.

2004 eta 2006 artean gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduen batez besteko neurrian emandako bilakaera aztertzean egiaztatzen da kooperatiben establezimendu kopuruaren igoera enpleguaren igoera baino handiagoa bada ere, esan litekeela zentro horien batez besteko tamaina zertxobait murriztu dela. Sozietate laboralen kopurua jaisteak eta horrekin batera eman den enplegu agregatuaren nolabaiteko hazkundeak, berriz, establezimenduen batez besteko tamainaren hazkundera ekarri du.

Ildo horretan, egiaztatu da azken bi urteotan sozietate laboralen batez besteko tamaina handitu egin dela (SAL eta SLL), 2002 eta 2004an erregistratutako datuak luzatuta. Eta, beste alde batetik, kooperatiben batez besteko tamaina murriztu egin da, 2002-2004 biurtekoan antzemandako bilakaera negatiboarekin bat etorrita.

2.3 taula
ESTABLEZIMENDUEN BATEZ BESTEKO TAMAINA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA (ENPLEGATUAK/ESTABLEZIMENDUAK) 2004-2006

	2004	2006
S. Kooperatibak	27,8	26,8
SL	9,8	10,7
SAL	16,9	18,8
SLL	5,4	6,3

Enpleguaren arloz arloko egitura aztertuz gero, kooperatiben sektoreak industria izaera nabarmena duela antzeman daiteke. Epe honetan industriaren pisua puntu hamarren batean handitu da, eta era horretan esan behar da 2006an kooperatiben enpleguaren %49,3 industriaren alorrekoa zela. Eraikuntza kontuan hartuz gero kopuru hori %51,5eraino handituko litzateke. Hala eta guztiz ere, industriaren eta zerbitzuen sektorearen arteko diferentzia oso txikia da, sektore horretan kooperatiba izaera duten enpleguak %48,3 izanik.

2.4 taula
KOOPERATIBEN ENPLEGUAREN ARLOZ ARLOKO EGITURA. 2004 ETA 2006 URTEETAKO ERREFERENTZIA
(c.a., % v.)

	2004		2006	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	96	%0,2	98	%0,2
Industria	23.516	%49,2	24.525	%49,3
Eraikuntza	1.004	%2,1	1.108	%2,2
Zerbitzuak	23.181	%48,5	24.028	%48,3
GUZTIRA	47.797	100,0	49.760	100,0

Sozietate laboralen kasuan, SAL zein SLL sozietateen kasuan, 2006an azpimarratzekoa da industria-sektoreak izandako papera. SLLen artean kooperatiben sektorearen oso antzekoa da, %47,1, baina SALen kasuan gora egin du, %66 erdietsi arte. 2004ko datuekin alderatuz gero, ordea, esan beharra dago SALen kasuan industriaren alorreko enpleguaren garrantzi erlatiboa murriztu egin dela zerbitzuen sektorearen mesedetan, baina industriak SLLetan duen pisu erlatiboa handitu egin dela.

Dena dela, 2004 eta 2006 artean sozietate laboraletako enpleguaren arloz arloko egituraren bilakaera aztertzerakoan antzeman daiteke SAL sozietateetan enpleguak zerbitzuen sektorean duen pisua gero eta handiagoa dela, eta horrek berekin dakarrela sozietate laboralen multzo osoan hirugarren sektoreko enpleguaren pisua ere gero eta handiagoa izatea. Bilakaera horrek talka egiten du orain arte industriak kooperatiben enpleguan parte hartzeko kuota mantentzeko izandako joerarekin.

2.5 taula
SOZIETATE LABORALEN ENPLEGUAREN EGITURA SEKTORIALA. 2004 ETA 2006 URTEETAKO
ERREFERENTZIA. (c.a., % v.)

	SALak				SLLak				Sozietate laboralak			
	2004		2006		2004		2006		2004		2006	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	17	%0,2	5	%0,1	31	%0,7	30	%0,6	39	%0,3	35	%0,3
Industria	6.105	%71,3	5.435	%66,0	1.719	%39,3	2.390	%47,1	7.826	%60,5	7.825	%58,8
Eraikuntza	522	%6,1	462	%5,6	774	%17,7	658	%13,0	1.294	%10,0	1.121	%8,4
Zerbitzuak	1.918	%22,4	2.336	%28,3	1.850	%42,3	1.997	%39,3	3.777	%29,2	4.333	%32,5
GUZTIRA	8.563	100,0	8.238	100,0	4.373	100,0	5.075	100,0	12.936	100,0	13.314	100,0


2.2.- BEG ETA PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA

BEG balioaren banaketa forma juridikoaren arabera aztertuta **kooperatibek** gizarte-ekonomiaren produkzio-egituraren barruan duten garrantzi erlatiboa ikus daiteke. Ildo horretan, **BEG osoaren %85,6 mota horretako establezimenduek sortutakoa da.**

Horrezaz gain, kooperatibek BEG balioan duten parte hartzea 2004 eta 2006 artean ia ehuneko batean handitu da. Parte hartze hori enplegu bolumenaren terminoetan hitz eginda dagokiona baino askoz handiagoa da, enpresa kooperatiben produktibitate antzemangarria ere handiagoa delako.

Sozietate laboralen eremuan, sortutako BEGaren zatirik handiena SAL sozietateek sortutakoa da (%10), eta SLLek sortzen dutena, berriz, %4,4koa da. Bi portzentajeak enplegu gaietan izan lezaketen garrantzi erlatiboaren oso azpitik daude. Diferentzia hori ulertzeko SLen produktibitate nabarmen txikiagoa hartu behar da kontuan, neurri handi batean enpresa txikiagoak izatetik eratorria.

2.2 irudia
BEG BALIOAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2006 (%v)



Forma juridiko bakoitzaren BEGaren sektore-egitura kontuan hartzean enpleguaren banaketa aztertzean aurreratutako joerak are gehiago sendotzen dira.

Horiek horrela, kooperatiben barruko industriaren alorreko establezimenduek sortutako BEG balioa enpresa mota horri dagokion kopuru osoaren %59,3koa dela ikusten da; eta zerbitzuen alorreko establezimenduek, berriz, %39 inguru baino ez dute biltzen, batez besteko produktibitate antzemangarri txikiagoa dutela eta.

SAL motako sozietateen kasuan, industria-establezimenduek sortutako BEGa kopuru osoaren %69,9ra iritsi da. SLL sozietateetan soilik antzeman daiteke sektoreen arteko oreka handiagoa. Industria BEG handiena sortzen duen sektorea bada ere, zerbitzuen sektorearekin duen aldea ez da hain nabarmena (%44,2 industriari lotua, zerbitzuek sortutakoa %39,9 den bitartean).

2.6 taula
BEG BALIOAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA . 2006
(c.a., %v.)

Jarduera-sektorea	GUZTIRA		S.KOOP		SAL		SLL	
	c.a.	%v	c.a.	%v	c.a.	%v	c.a.	%v
Lehen sektorea	3.880.303	%0,1	3.018.629,59	%0,1	123.096,23	%0,0	738.577,38	%0,6
Industria	1.757.118.864	%59,7	1.494.279.483	%59,3	205.512.287	%69,9	57.327.094	%44,2
Eraikuntza	81.065.552	%2,8	40.055.021	%1,6	21.014.938	%7,2	19.995.592	%15,4
Zerbitzuak	1.101.579.416	%37,4	982.592.238	%39,0	67.224.886	%22,9	51.762.292	%39,9
GUZTIRA	2.943.644.135	100,0	2.519.945.371	100,0	293.875.208	100,0	129.823.556	100,0

Gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduen produktibitate antzemangarriaren analisia forma juridikoaren arabera eginez gero ikus liteke, aurreko ekitaldietan bezalaxe, oso produktibitate-maila desberdinak ematen direla, forma juridikoaren eta jarduera-sektorearen arabera.

Alde batetik, kooperatibek sozietate laboralek baino produktibitate-maila handiagoak dituzte, kontuan hartzen den sektorea edozein dela ere, eta gogoan hartu behar da azken horien barruan produktibitate-maila txikiak SLL sozietateek dituztela beti. Beste alde batetik, formatu juridiko bakoitzaren barruan, industriaren alorreko establezimenduek hirugarren sektoreko establezimenduek baino produktibitate-maila handiagoak dituzte, ondorengo taulan ikus daitekeen bezalaxe.

2.7 taula

ARLOZ ARLOKO PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA KOOPERATIBA, SAL ETA SLL SOZINETATEETAN. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA (BEG euro kopurua milatan/Enplegatua)

	S.Koop.		SALak		SLLak		SLen agregatua	
	2004	2006	2004	2006	2004	2006	2004	2006
Industria	52,6	60,9	33,9	37,8	23,0	24,0	31,5	33,6
Zerbitzuak	34,3	40,9	26,6	28,8	21,8	25,9	24,2	27,5
GUZTIRA	43,3	50,6	32,1	35,7	22,6	25,6	28,9	31,8

Hala eta guztiz ere, zehaztasun gehiago jasotzekotan honako errealitateak aipatu beharko lirateke:

- Sektoreen arteko produktibitate handiena industria-kooperatibei dagokie, langile bakoitzeko 60.000 eurotik gorako kopuruekin.
- Kontrako muturrean, SLL sozietate guztietan produktibitatea 30.000 eurotik beherakoa da langile bakoitzeko, sektorea edozein dela ere (industria eta zerbitzuak). Hirugarren sektoreko SAL sozietateetan egoera bera ematen da.
- Erdibidean, langile bakoitzeko 35.00 eta 40.000 euroko tartean dauden kopuruekin industria-sektoreko SAL sozietateak ditugu, baita zerbitzuen sektoreko establezimendu kooperatiboak ere.

Nolanahi ere, honako hau ere kontuan hartu beharreko datu bat da: forma juridiko guztietan eta sektore guztietan, industria zein zerbitzuetan, 2004-2006an produktibitate antzemangarria hazi egin da aurreko biurtekoarekiko.

Azkenik, azpimarratu behar da BEGaren banaketa forma juridikoaren arabera eginez gero ia ez dagoela alderik 2004. urtearekin. Hortaz, kooperatibek gizarte-ekonomiak sortutako BEG osoaren %85etik gorako pisua mantendu dute (2004. urtean baino ehuneko bat gehiago). SAL sozietateek %10-11 inguruko kopuruetan mantendu dira eta SLL sozietateek, berriz, %4-4,5 inguruko mailetan.

2.8 taula
GIZARTE-EKONOMIAK SORTUTAKO BALIO ERANTSI GORDINAREN (BEG) BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. KONPARAZIOZKO ERREFERENTZIA 2004 ETA 2006. (c.a. euro kopurua milatan, % v.) (Ohiko prezioak)

	2004		2006	
	c.a.	v.%	c.a.	v.%
Kooperatibak	2.099.315	%85,0	2.519.945	%85,6
SLak	370.467	%15,0	423.698	%14,4
SALak	271.676	%11,0	293.875	%10,0
SLLak	98.791	%4,0	129.823	%4,4
GUZTIRA	2.469.782	100,0	2.943.644	100,0

3.- GIZARTE-EKONOMIAREN LURRALDE PROFILA


Hirugarren atal honetan gizarte-ekonomiak lurralde historiko bakoitzean duen profilaren analisia egingo da, enplegua, establezimenduak eta 2006. urtean sortutako BEG balioa kontuan hartuta.

3.1.- ENPLEGUAREN ETA ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE PROFILA

Oro har, **enpleguen eta establezimenduen banaketa lurralde historikoaren arabera 2004. urteko antzeko portzentajeetan mantendu da.**


Hala eta guztiz ere, aipatu behar da Gipuzkoako Lurraldearen barruan gizarte-ekonomiaren pisu erlatiboaren murrizketa txikia gertatu dela 2004. urteari dagokionez, eta, ondorioz, enpleguaren pisua %52,2tik %51,7 jaitsi dela. Bizkaian %38,2tik %38,9 igo da, eta Araban, berriz, mantendu egin da enpleguan duen parte hartzea, eta hamarren bat hobetuta 2006an %9,5ean kokatu da.

3.1 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN LURRALDE BANAKETAREN BILAKAERA. 2004-2006



Nahiz eta jaitsiera txikia sumatu, **Gipuzkoako gizarte-ekonomiaren enpresa-egitura EAEko sendoena** da oraindik ere. Euskal gizarte-ekonomiaren enpleguaren erdia baino gehiago biltzeaz gain, **Gipuzkoak pisu erlatibo handiena du bere lurraldeko enplegu globalari dagokionez**. Ildo horretan, Lurralde Historikoko 10 enplegutatik bat baino zertxobait gehiago gizarte-ekonomiaren alorreko establezimenduei dagokie, %10,2 hain zuzen ere. Proporzio hori Bizkaian %5ekoa da eta %4,2koa Araban.

3.2 irudia
GIZARTE-EKONOMIAK EAEko EKONOMIAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA (Enpleguaren pisu erlatiboa lurralde historikoaren arabera). 2004-2006




Iturria: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta (BJA), Eustat 2006

Gipuzkoan gizarte-ekonomiaren enpleguak duen pisua eta establezimenduen lurralde banaketa oso desberdinak dira. Banaketa hori kontuan hartzean, egiaztatu egiten da **Bizkaiko Lurraldeak garrantzi erlatibo handiagoa duela Gipuzkoako Lurraldeak baino**, eta horrek adierazten du Gipuzkoako establezimenduen batez besteko tamaina handiagoa dela Bizkaiko establezimenduekin alderatuta.

Establezimenduen lurralde banaketa dagoeneko 2004. urtean ikusitako antzeko portzentajeetan mantendu da. Horiek horrela, 2006an zentroen %46, Bizkaian 3 kokatzen ziren, Gipuzkoan %39,4 eta Araban %14,3. Enpleguarekin gertatzen zen bezalaxe, 2006. urtean Arabak eta Bizkaiak nolabaiteko pisu erlatiboa irabazi zuten Gipuzkoarekiko.

3.3 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN LURRALDE BANAKETAREN BILAKAERA. 2004-2006



3.1 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ESTABLEZIMENDUEN ETA ENPLEGUEN LURRALDE BANAKETA. (c.a., %v.) 2006

	ENPLEGUAK		ESTABLEZIMENDUAK	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Araba	5.968	%9,5	444	%14,3
Bizkaia	24.514	%38,9	1.432	%46,3
Gipuzkoa	32.591	%51,7	1.220	%39,4
GUZTIRA	63.073	100,0	3.096	100,0

Lurralde azterketa forma juridikoaren arabera eginez gero sektoreen berezitasun batzuk jartzen dira agerian. Horiek horrela, **gizarte-ekonomiaren alorreko kooperatiben (%55,4) eta SLL sozietateen (%46,7) enplegu gehienak Gipuzkoan dauden bitartean, SAL sozietateen establezimendu gehienak Bizkaian daude.** Azken lurralde horretan **establezimendu mota horrek sortzen duen enplegu osoaren %57,6 biltzen da.**

3.2 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN LURRALDE BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. (c.a., % v.)

	GUZTIRA		S. KOOP.		SALak		SLLak	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Araba	5.968	%9,5	4.619	%9,3	855	%10,4	495	%9,7
Bizkaia	24.514	%38,9	17.560	%35,3	4.741	%57,6	2.212	%43,6
Gipuzkoa	32.591	%51,7	27.581	%55,4	2.642	%32,0	2.369	%46,7
GUZTIRA	63.073	100,0	49.760	100,0	8.238	100,0	5.076	100,0

Lurralde bakoitzaren barruan enpleguaren egituraren analisia forma juridikoa kontuan hartuta eginez gero ikus liteke Gipuzkoan enplegu kooperatiboa dela nagusi (lurralde horretan gizarte-ekonomiaren enplegu osoaren %84,6 hartzen du). Hala eta guztiz ere, lurralde guztietan enplegu kooperatiboak duen pisua %70etik gora dagoela esan behar da.

Lurralde horretan duen nagusitasuna dela eta, Sozietate Laboralen enpleguaren pisu espezifikoa handiena Bizkaian antzematen da, %28,3 hain zuzen ere, Arabako %22,6 eta Gipuzkoako %15,4aren gainetik.

3.3 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN LURRALDE BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. (% h.)

	GUZTIRA	S.KOOP.	SALak	SLLak
Araba	100,0	77,4	14,3	8,3
Bizkaia	100,0	71,6	19,3	9,0
Gipuzkoa	100,0	84,6	8,1	7,3
GUZTIRA	100,0	78,8	13,1	8,0

3.4 taulan zehatz-mehatz dago azalduta hiru lurralde historikoetan eta EAE osoan enplegua nola dagoen banatua, forma juridikoei eta jarduera-sektoreei dagokienez. Informazio horren ondorioz lor daitezkeen kontsiderazio garrantzitsuenak honakoak dira:

- **Hiru lurraldeetatik Gipuzkoan soilik da nagusi industria-alorreko enplegua, ez maila globalean bakarrik, hiru formatu juridikoetan ere bai.** Industriaren pisua bereziki adierazgarria da SAL (%78,1) eta SLL sozietateen kasuan (%67,2), eta kooperatiben kasuan %61,9an mantendu egin da.
- **Arabaren zerbitzuen sektoreak enpleguan duen pisu espezifikoak industria-sektoreak duena baino handiagoa da** (%50,4 eta %43,2 hurrenez hurren). Hala ere, 2004-2006 biurtekoan industriaren alorreko enplegua handitzeari esker alde hori ia %10ean murriztu da 2004. urtearekiko. Beste alde batetik, zerbitzuen nagusitasuna kooperatiben sektorean baino ez da ematen, zerbitzuen sektorean enpleguaren %59,2 bilduta. Sozietate laboralen enplegu gehiena, ordea, industriaren alorrekoa da.
- Baina **zerbitzuen sektoreak Bizkaian du pisurik handiena, %58,4** hain zuzen. Araban ez bezala, gainera, Bizkaiko Lurralde Historikoan zerbitzuen pisu espezifikoak **handitu egin da aurreko biurtekoarekiko**. Araban bezala, enplegu kooperatiboaren zatirik handiena zerbitzuetan kontzentratzen da (%64), eta SLL sozietateen kasuan ere (%54,6) zerbitzuen alorreko enpleguak dira nagusi. Industria-enplegua SAL sozietateetan soilik da nagusi, %55,6, baina proportzio hori Araba eta Gipuzkoako SAL sozietateek erregistratzen duten %80 inguruko edo goragoko zifretatik askoz beherago dago.

3.4 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA LURRALDE
HISTORIKOAREN ARABERA 2006

EAE	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	133	%0,2	98	%0,2	5	%0,1	30	%0,6
Industria	32.350	%51,2	24.525	%49,3	5.435	%66,0	2.390	%47,1
Eraikuntza	2.229	%3,5	1.108	%2,2	462	%5,6	658	%13,0
Zerbitzuak	28.361	%45,0	24.028	%48,3	2.336	%28,3	1.997	%39,3
GUZTIRA	63.073	100,0	49.760	100,0	8.238	100,0	5.075	100,0

ARABA	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	51	%0,9	51	%1,1	0	%0,0	0	%0,0
Industria	2.581	%43,2	1.612	%34,9	739	%86,4	230	%46,6
Eraikuntza	330	%5,5	222	%4,8	57	%6,6	51	%10,3
Zerbitzuak	3.006	%50,4	2.733	%59,2	60	%7,0	213	%43,1
GUZTIRA	5.968	100,0	4.619	100,0	855	100,0	495	100,0

BIZKAIA	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	58	%0,2	38	%0,2	0	%0,0	20	%0,9
Industria	9.038	%36,9	5.837	%33,2	2.634	%55,6	567	%25,6
Eraikuntza	1.110	%4,5	454	%2,6	239	%5,0	417	%18,8
Zerbitzuak	14.308	%58,4	11.231	%64,0	1.869	%39,4	1.208	%54,6
GUZTIRA	24.514	100,0	17.560	100,0	4.741	100,0	2.212	100,0

GIPUZKOA	GUZTIRA		S. KOOP.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	24	%0,1	9	%0,0	5	%0,2	10	%0,4
Industria	20.732	%63,6	17.077	%61,9	2.063	%78,1	1.592	%67,2
Eraikuntza	789	%2,4	432	%1,6	167	%6,3	191	%8,0
Zerbitzuak	11.046	%33,9	10.064	%36,5	407	%15,4	576	%24,3
GUZTIRA	32.591	100,0	27.581	100,0	2.642	100,0	2.369	100,0

Interes berezia du gizarte-ekonomiaren testuinguruan industria-enpleguari lotutako ezaugarriak zehatz-mehatz aztertzea. Nahitaezkoa da azterketa hori egitea, batez ere egiaztatu delako 2002 eta 2004 artean, 1994. urteaz geroztik lehenengo aldiz, gizarte-ekonomiako industria-enpleguaren bolumenean jaitsiera absolutua eman zela.

Ondorengo taulan ikus daitekeenez, industriaren alorreko enpleguaren jaitsiera hiru lurraldeetan dagoeneko ez da berdina, 2002-2004an gertatzen zenaren kontrara. 2004 eta 2006 artean jaitsiera hori Bizkaiko Lurraldean soilik mantendu da. Araban, berriz, industria alorraren dinamikan hazkunde nabaria eman dela antzematen da, enpleguaren mailak %13,9 hazita. Gipuzkoako Lurraldean ere enplegua suspertu zela antzeman daiteke, %4,1 hazi baitzen 2004. urtearekin alderatuta.

3.5 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN INDUSTRIIA-ENPLEGUAREN LURRALDE BANAKETA ETA BILAKAERA. 2006

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	c.a.	Δ04-06	c.a.	Δ04-06	c.a.	Δ04-06
Industria	2.581	+13,9	9.038	-2,4	20.732	+4,1

Bizkaiaren industriaren alorreko enplegua galtzearen arrazoia izan daiteke SAL sozietateetan enplegua jaitea, 2004 eta 2006 urteen artean enplegua %10,5 murriztu baita. Hala eta guztiz ere, jaitsiera hori ez zen Bizkaiaren bakarrik gertatu, beste bi lurraldeetan ere eman baitzen (%-12,0 Araban eta %-12,4 Gipuzkoan). Formatu juridiko hori duten establezimendu mota desagertzeko joera orokorraren isla baino ez da egoera hori. Egia esan, Bizkaiak duen berezitasuna da Araban, eta batez ere Gipuzkoan, baino gutxiago hazi dela kooperatiben sektorearen eta SLL sozietateen enplegua. Forma juridiko mota horretan Bizkaiak enplegua galdu du (%-1,6), baina beste bi lurraldeetan enpleguak hazkunde handia izan du.

3.6 taula
INDUSTRIAREN ALORREKO ENPLEGUAREN BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA. 2006

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	c.a.	Δ04-06	c.a.	Δ04-06	c.a.	Δ04-06
Kooperatibak	1.612	+21,7	5.837	+1,7	17.077	+3,4
SL sozietateak	969	+2,9	3.201	-9,1%	3.655	+7,7
SAL	739	-12,0	2.634	-10,5%	2.063	-12,4
SLL	230	+125,5	567	-1,6	1.592	+53,5
GUZTIRA	2.581	+13,9	9.038	-2,4	20.732	+4,1

Era berean, gizarte-ekonomiaren enpleguaren lurralde profilararen analisia egiteak lurralde bakoitzaren sektore enpleguaren barruan gizarte-ekonomiari dagokion pisu erlatiboari hurbilketa zehatzagoa egitea eskatzen du. 3.7. taulan lurralde eta sektore bakoitzeko emaitzak azaltzen dira zehatz-mehatz, eta horien ezaugarri nagusienak honakoak dira:

- **Gipuzkoan 100 enpleguetatik %10,2 oro har gizarte-ekonomiaren establezimenduei dagokie.** Dena dela, gizarte-sektorearen enpleguaren pisu espezifiko askoz handiagoa da **industriaren kasuan**. Kasu horretan, **gizarte-ekonomiaren establezimenduek Gipuzkoako industriak sortutako 100 enpleguetatik 21,9 biltzen dituzte.** Proporzioa %5,6koa da zerbitzuetan, eta %3,3 jaisten da eraikuntzaren enpleguen kasuan eta %0,7ra lehen sektoreko enpleguen kasuan.

- Bizkaian **gizarte-ekonomiaren industria-sektoreak lurraldearen ekonomian duen pisu espezifikoa, %8,7, gainerako sektoreen pisua bainoa askoz handiagoa da,** eta bikoiztu egiten du zerbitzuen sektoreari dagokion pisua (%4,2). Parte hartzea %2,5era jaisten da eraikuntzan eta %1era lehen sektorean.
- Araban, industria da pisu espezifiko handiena duen jarduera-sektorea, nahiz eta Arabako industriak sortutako enplegu osoaren %5,7 baino ez izan. Proportzioa %3,7ra jaisten da zerbitzuetan, %2,8ra eraikuntzan eta %1,7ra nekazaritzan.

Adierazitako ezaugarriak neurri handi batean bat datoz 2004an lurralde historikoetan gizarte-ekonomiaren sektore bakoitzak zuen pisu erlatiboa aztertzerakoan deskribatutako egoerarekin. Zalantzarik gabe agerian jartzen dute gizarte-ekonomiak euskal industrian duen funtsezko papera, Gipuzkoan batez ere, baina baita Bizkaian ere. Azken kasu horretan gizarte-ekonomiak enplegua osoan duen parte hartzea %5etik gorakoa da.

Kopuruak ere oso adierazgarriak dira. Arabako industria-sektorea eta Gipuzkoa eta Bizkaiko zerbitzuen sektorea %4 eta %6 artean daude.

3.7 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPLEGUEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (duen garrantzi erlatiboa,%, euskal ekonomia osoari dagokionez). 2006

EAE			
	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	133	12.500	%1,1
Industria	32.350	244.500	%13,2
Eraikuntza	2.229	80.700	%2,8
Zerbitzuak	28.361	616.400	%4,6
GUZTIRA	63.073	954.200	%6,6
ARABA			
	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	51	3.100	%1,7
Industria	2.581	45.500	%5,7
Eraikuntza	330	11.600	%2,8
Zerbitzuak	3.006	82.300	%3,7
GUZTIRA	5.968	142.500	%4,2
BIZKAIA			
	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	58	5.800	%1
Industria	9.038	104.300	%8,7
Eraikuntza	1.110	45.100	%2,5
Zerbitzuak	14.308	336.700	%4,2
GUZTIRA	24.514	491.900	%5
GIPUZKOA			
	Gizarte-ekonomia	Euskal ekonomia guztira	Garrantzi erlatiboa ehunekotan
Lehen sektorea	24	3.600	%0,7
Industria	20.732	94.700	%21,9
Eraikuntza	789	24.000	%3,3
Zerbitzuak	11.046	197.500	%5,6
GUZTIRA	32.591	319.800	%10,2

3.2.- BEG BALIOAREN ETA PRODUKTIBITATE ATZEMANGARRIAREN LURRALDE PROFILA

Nahiz eta 2004 eta 2006 artean BEGaren bilakaeraren dinamika hiru lurralde historikoetan beti positiboa izan, oso anitza da dimentsioari dagokionez. Alde batetik, antzeko hazkundea antzematen da **Gipuzkoa eta Arabaren kasuetan; izan ere, 2004an sortutako BEGarekin alderatuz gero, Gipuzkoan %22ko hazkundea eman zen, eta %21eko Araban. Bizkaian 2004 eta 2006 artean eman den hazkundea askoz moderatuagoa izan da, termino nominaletan adierazita %9,7koa.**

2006. urtean Gipuzkoa izan da, berriro ere, EAEko gizarte-ekonomiako BEG balioaren erdia baino gehiago sortu duena, horren %57,9 bilduta. Bizkaiko enpresa establezimenduek BEGaren %31,4 sortu dute, eta Arabakoek, berriz, %10,7.

3.4 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN BEG BALIOAREN LURRALDE BANAKETAREN BILAKAERA. 2004-2006



Forma juridikoaren arabera lurralde azterketak erakusten duenez, Gipuzkoan BEG balioaren kontzentrazio erlatibo handiena kooperatiben kasuan ematen da. Kasu horretan, **kooperatiben BEG osoaren %61,4** lurralde horretan kontzentratzen da. **Sozietate laboraletan**, ordea, **Bizkaiko Lurraldeko sozietateen nagusitasuna antzematen da**. Kasu horretan, parte hartze portzentajea %54,8koa da SAL sozietateen artean eta %45,9 SLL sozietateetan.

3.8 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN BEG BALIOAREN LURRALDE BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA.
(c.a. eurotan. % v.)

	EAE		S.KOOP		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Araba	315.190.182	%10,7	271.186.083	%10,8	28.873.726	%9,8	15.130.372	%11,7
Bizkaia	923.327.966	%31,4	702.635.895	%27,9	161.025.245	%54,8	59.666.827	%45,9
Gipuzkoa	1.705.125.987	%57,9	1.546.123.394	%61,4	103.976.236	%35,4	55.026.357	%42,4
GUZTIRA	2.943.644.135	100,0	2.519.945.372	100,0	293.875.207	100,0	129.823.556	100,0

Lurralde bakoitzaren barruan, kooperatiben nagusitasuna BEG balioaren kontzentrazioan oso adierazgarria da eta hiru lurraldeetan sortutako enpleguan antzematen zena baino handiagoa da. Araban eta Gipuzkoan nagusitasun hori %85 eta %90 kopuruetan kokatzen da (%90,7 Gipuzkoan eta %86 Araban). SAL sozietateek sortutako BEG balioan parte hartze handiena duten lurraldea Bizkaia da (%23,9).

3.9 taula
BEG BALIOAREN LURRALDE BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA.
2006 (% h.)

	GUZTIRA	S.KOOP	SAL	SLL
Araba	100	%86,0	%9,2	%4,8
Bizkaia	100	%76,1	%17,4	%6,5
Gipuzkoa	100	%90,7	%6,1	%3,2
GUZTIRA	100	%85,6	%10,0	%4,4

Lurralde historikoaren eta jarduera-sektorearen arabera BEGaren banaketari dagokionez, daturik esanguratsuen da Gipuzkoan industria-sektoreak duen pisu nabaria, sektore horrek bere gain hartzen baitu lurralde horretako gizarte-ekonomiak sortutako BEGaren %73. Beste bi lurraldeetan, ordea, zerbitzuak industria-sektorearen gaineratik daude, Gipuzkoan sortutako BEG osoaren %54 eta Araban %59, hain zuzen.

3.10 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN BEGaren ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA.
(c.a. eurotan, % v.)

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	3.880.303	%0,1	2.206.693	%0,7	1.159.664	%0,1	513.946	%0,0
Industria	1.757.118.864	%59,7	113.018.637	%35,9	387.691.579	%42,0	1.256.408.647	%73,7
Eraikuntza	81.065.552	%2,8	13.982.954	%4,4	35.962.758	%3,9	31.119.840	%1,8
Zerbitzuak	1.101.579.416	%37,4	185.981.897	%59,0	498.513.965	%54,0	417.083.554	%24,5
GUZTIRA	2.943.644.135	100,0	315.190.182	100,0	923.327.966	100,0	1.705.125.987	100,0

Lurralde bakoitzeko gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen produktibitate antzemangarriari dagokionez, Gipuzkoa eta Arabaren kasuan hazkundera izan dela antzematen da, betiere sortutako BEGaren bilakaera positiboari lotua: produktibitate antzemangarriaren %22 eta %20, hurrenez hurren, termino nominaletan adierazita, 2004. urtearekin alderatuta. Bizkaian, produktibitate antzemangarriaren hazkundera moderatuagoa izan da, termino nominaletan %16koa.

Produktibitate handiena Gipuzkoa eta Arabari dagokie, langile bakoitzeko 52.000 euro baino gehiagorekin, Bizkaiak dituen 37.700 euroetatik oso gaineratik.

3.11 taula
PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA
2004-2006.
(Euro kopurua, milatan /Enplegatua)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
2004 ⁹	43,8	32,5	42,7	40,2
2006	52,8	37,7	52,3	46,7

Aurreko taulan enplegatu bakoitzeko batez besteko produktibitate maila buruz adierazitako desberdintasunak lurralde bakoitzeko enpresa establezimenduen enpresa profil desberdinen isla besterik ez dira. Era berean, datu horietan 2004 eta 2006 artean gizarte-ekonomiaren enpresa-egituran izandako bilakaera ere kontuan hartu behar da.

Gipuzkoako produktibitate-mailak altuak dira tamaina handiagoko industria-enpresak daudelako, kooperatibak batez ere. Arabaren kasuan, batez besteko produktibitatea ere altua da, batez ere lurralde barruan hirugarren sektoreko kooperatiba handiek duten garrantziarengatik.

Bizkaiaren kasuan, ordea, batez besteko produktibitatea askoz txikiagoa da; izan ere, lurralde horretan sozietate laboralek pisu espezifiko handia dute, SAL sozietateek batez ere, eta horien batez besteko produktibitatea txikiagoa izaten da.

Nolanahi ere, forma juridikoa kontuan hartuz gero, hiru lurraldeetan produktibitate-mailak askoz altuagoak dira kooperatiben kasuan, eta magnitude handieneko diferentziala Arabako Lurraldearena da.

Arabako kooperatibek (58.700/enplegatu bakoitzeko) eta Gipuzkoakoek (56.060/enplegatu bakoitzeko) produktibitate-ratio altuenak dituzte. Bitarteko toki batean, enplegatu bakoitzeko 40.000 euro ingururekin, Bizkaiko kooperatibak eta Gipuzkoako SAL sozietateak ditugu, eta azkenik, Arabako eta Bizkaiko SAL sozietateak ditugu, enplegatu bakoitzeko 35.000 eurekin. Produktibitate baxuenak, 25.000 euro inguru edo gutxiagorekin, hiru lurraldeetako SLL sozietateek lortzen dituzte.

⁹ BEGaren lurralde banaketa aldatu egin da Eroski S. Kooperatibari dagozkion lurralde koefizienteetan egindako aldaketa batengatik. Horren helburua da datu historikoak enpresak 2006ko ekitaldian emandako datuekin alderatu ahal izatea.

3.12 taula
LURRALDE PRODUKTIBITATE ANTZEMANGARRIA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2006
(Euroak/Enplegatua)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
S. Koop.	58.700	40.000	56.100	50.600
SAL	33.800	34.000	39.400	35.700
SLL	30.600	27.000	23.200	25.600
GUZTIRA	52.800	37.700	52.300	46.700


4.- GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOAK

4. atal honetan kanporako irekitze-maila aztertuko da, horretarako esportazio bolumena eta horrek negozio kopuru globalean duen pisu erlatiboa aztertuta. Kopuru horiek, neurri handi batean, jarraian analizatuko diren faktore batzuen mende daude, forma juridikoa edo enpresen tamaina, esate baterako.

2006an gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen **esportazioen bolumena termino absolutuetan 2.240 milioi eurokoa zen**. Horrek esan nahi du 2004ko datuekin alderatuz gero **%33ko hazkundera eman zela, termino nominaletan adierazita**. Era horretan, egiaztatzen da kanpora irekitzea ez dela mugatzen soilik azken urteotan industria-enpresa handietan erregistratu diren deslokalizazio prozesuetara; horretaz gain, adierazi behar da euskal gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa eta establezimenduak merkatu berrietan sartu direla.

Gizarte-ekonomiaren fakturazio osoan, esportazioen pisu erlatiboak azken biurtekoan %2,4ko hazkundera izan du. Hazkunde horrek ahalbidetu egin du esportazioek fakturazioan %23,5eko parte hartzea izatea, 2004an %21,1ekoa erdietsi zen bitartean. Antzemandako hazkundeak 2006ko egoera 2002ko egoerara hurbildu du; urte horretan esportazioek fakturazioan izan zuten pisuak gehiengo historiko bat lortu zuten, %24,1ekoa hain zuzen.


4.1 irudia
KANPOKO MERKATUETARAKO IREKITZE-MAILAREN BILAKAERA (esportazio bolumena fakturazio osoaren gainean. 1994-2006)



Esportazioek erakutsitako dinamikak zerikusi handia du neurri handi batean enpresa esportatzaileek izandako bilakaerarekin, ondorengo irudian azaltzen den bezalaxe. Ildo horretan, esportazioak enpresa establezimendu esportatzaileen fakturazio osoarekin erlazionatzen dituen ratioa 4,1 puntu handitu da 2004. urteari dagokionez, gizarte-ekonomia osoa hazi zen 2,4 puntuen gainetik¹⁰.


¹⁰ EAEko gizarte-ekonomiaren Estatistikaren ondorioetarako, establezimendu esportatzailetzat hartzen da EAEn dagoen establezimendua, eta egoitza soziala edonon dagoela ere, bere salmenten zati bat behintzat Espainiako merkatuetatik kanpo egiten dituen. Estatistikan, lokalizazio kontzeptua esaten zaio enpresa establezimendu berriak kanpoko merkatuetan zuzenean sortzeari.

4.2 irudia
ESPORTAZIOEK ENPRESA ESPORTATZAILAEN FAKTURAZIO OSOAREN GAINEAN DUTEN PISU
ERLATIBOAREN BILAKAERA



Esportazioak, gehienbat, Europara egiten dira, kopuru osoaren %74,8 bertara esportatzen baita. Horretaz gain, nabarmentzekoa da Asiara egiten diren esportazioen pisu erlatiboa, %7, 2004ko datuekin alderatuta %4ko hazkundea suposatzen duena. Bilakaera hori Erdialdeko Amerika eta Hego Amerikarako esportazioen kaltetan doa, gizarte-ekonomiaren esportazioen kontzentrazioan 3 ehunekoko galera izan baitute.

4.3 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN ESPORTAZIOEN NORAKOA. 2006 (norakoaren araberrako
esportazio guztien %)



Ondorengo taulan agerian gelditzen da Asiako herrialdeetara egiten den esportazio kopuruan hazkunde nabaria eman dela, 2004 eta 2006 artean esportazio bolumena %257,3 hazi baita. Nolanahi ere, hazkunde hori oso garrantzitsua da Estatu Batuetara (%94,2) eta Europako gainerako herrialdeetara (%32,1) esportatzen denari dagokionez. Hego Amerikako herrialdeetara esportatutakoaren kopurua, berriz, %14,2 jaitsi da.

4.1 taula
ESPORTAZIOEN BOLUMENA, ZONAREN ETA BILAKAERAREN ARABERA

	c.a.	Δ06/04
Europa	1.675.104.241	%32,1
Asia	150.042.760	%257,3
AEB	114.211.653	%94,2
Hegoaldeko Amerika	125.408.874	%-14,2
Beste batzuk	174.676.645	%7,2
GUZTIRA	2.239.444.173	%33,4

4.1.- ESPORTAZIOAK, JARDUERA-SEKTORE, FORMA JURIDIKO ETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA

Esportazioek euskal gizarte-ekonomiaren fakturazioan duten paper garrantzitsua dela eta, interesgarria da enpresa eta establezimendu esportatzaileek dituzten ezaugarriak sakon aztertzea. Horri buruz, azpimarratu beharreko lehenengo datua da, aurreko ekitaldietan bezalaxe, esportazioen bolumena ia osorik industria-enpresa eta establezimenduetan kontzentratzen dela oraindik ere. Zentro horiek esportazio guztien %93,7 hartzen dute bere gain.

Industriaren barruan, esportazioek fakturazio kopuruan zuten pisu erlatiboa %40,6 zen, 2004. urtean lortutako portzentajearen 4 puntu gaineratik. Zerbitzu-enpresen kanpora ateratzea, berriz, oso murrizta da, negozio kopurua %1,6 besterik ez baita izan.

4.2 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOAEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA.
(c.a. euro kopurua, milatan, % v.) ETA NEGOZIO ZIFRAREN GAINEKO PISU ERLATIBOA (c.a., %v.)

	ESPORTAZIOAK		PISU ERLATIBOA /NEGOZIO ZIFRAREN arabera
	c.a.	%v.	%
Industria (*)	2.178.301.184	%97,3	%40,6
Zerbitzuak	60.990.583	%2,7	%1,6
GUZTIRA	2.239.444.173	100	%23,5

(*) Eraikuntza ez dago sartua.

Esportazioen bolumena handitzeak, neurri handi batean, zerikusi handia du industria-kooperatiba handiek izandako bilakaera positiboarekin; izan ere, horiek gizarte-ekonomiari dagozkion esportazio guztien %75 biltzen dute, eta batez beste 2004. urtean lortutako esportazio kopuruak bikoiztu egin dituzte. Espainiatik kanpoko merkatuetara egindako gainerako fakturazioa tamaina txikiagoko enpresei dagokie, eta esan beharra dago gizarte-ekonomiaren alorreko enpresa txiki eta ertainak (ETE) kanpoko merkatuetara duten irekitze-maila ez dela batere txarra.

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, kooperatibak dira kanpo merkatuetara gehien ireki direnak. Prozesu horrek, zalantzarik gabe, eragin handia du deslokalizazio prozesuetan. Mondragón Corporación Cooperativa enpresaren datuak erreferentzia gisa hartuta, garrantzitsua da kontuan hartzea EAEko gizarte-ekonomiaren alorreko enpresetan burutzen ari den nazioartekotzeko prozesua. Taldea 2000. urtean atzerrian 26 produkzio planta izatetik 2004an 48 planta izatera pasa da, eta 2006an 65 produkzio filial 18 herrialde desberdinetan. Gainera, aurreikusita zegoen 2007ko lehen sei hilabetekoan Txinan 4 filial abian hastea. Hala eta guztiz ere, kanpoko merkatuetan sartzea ez da deslokalizazio prozesuetara murrizten, esportazio

gaietan ere parte hartze nabaria baitute. Ildo horretan, MCC taldearen industria-alorrak fakturazio osoaren %57¹¹ kanpora saltzen du.

Kooperatiba guztiek batera gizarte-ekonomiaren esportazioek sortzen dituzten 10 eurotik 9 baino gehiago metatzen dituzte (%93,8). SAL eta SLL sozietateak esportazio guztien %5,7 eta %0,5 soilik hartzen dute bere gain.

Forma juridikoaren arabera, esportazioen pisuaren banaketa sektoreka eginez gero ez da funtsezko alderik ikusten. Bai industrian bai zerbitzuetan esportazioen %90etik gora kooperatiben sektoreari dagokio.


4.3 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA
(c.a. euro kopurua, milioitan eta, % h.)

	GUZTIRA		S. Koop.		SAL		SLL	
	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.
Industria	2.178.301.184	100	2.044.822.357	%93,9	125.407.887	%5,8	8.070.940	%0,4
Zerbitzuak	60.990.583	100	55.919.127	%91,7	1.845.114	%3,0	3.226.342	%5,3
GUZTIRA	2.239.444.173	100	2.100.893.889	%93,8	127.253.001	%5,7	11.297.283	%0,5

(*) Eraikuntza ez dago barne.

2006. urtean kooperatiben esportazioak salmenta zifren %24,7 izatera iritsi ziren. Proporzio hori SAL sozietateen kasuan oraindik %17,3koa da, eta SLL sozietateen kasuan soilik murriztu da, azken horietan esportazioak salmenten %3,7 baino ez baitira. 2004. urteari dagokionez, aipatutako ehunekoak 2 eta 2,5 arteko hazkundera suposatzen dute kooperatiben eta SAL sozietateen esportazioen pisu erlatiboan; SLL sozietateen fakturazioan, ordea, bi hamarren beherago dago esportazioen bolumena.

4.4 irudia
ESPORTAZIOEN PISU ERLATIBOAREN KONPARATIBA FAKTURAZIOARI DAKOKIONEZ.
2004-2006. (esportazioen %, fakturazioaren arabera)



¹¹ MCC taldeak 2006. urtean industria arloaren inguruan egindako oroitidazkiaren arabera, "Nazioartean egin diren salmenten kuota salmenta guztien kuotarekiko 2005. urteko %54,4tik 2006. urteko %56,7ra handitu da"

Kanpoko merkatuetara iristeak zerikusi handia du euskal gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen tamainarekin. 200 enplegatu baino gehiago dituzten enpresek 2006. ekitaldian egindako esportazio guztien %78,6 bildu dute. Kooperatiben kasuan portzentaje hori %83,2 iritsi da, eta esan beharra dago 500 enplegu edo gehiago dituzten kooperatiben artean %59koa izan dela.

Tamaina txikiagoko enpresek esportazioen bolumenean duten pisua handiagoa da gainerako forma juridikoetan. SLL sozietateetan jarduera esportatzailearen zatirik nagusiena 15 edo gutxiago dituzten enpresei dagokie, %43, 16 eta 50 enplegu bitarte dituztenen kopurua %36,2 da eta enpresa handienen kasuan, berriz, %20,8. SAL sozietateetan esportazioen %47,6 200 enplegu baino gehiago dituzten enpresei dagokien bitartean, %31,3 51 eta 200 enplegu bitarte dituzten establezimenduei dagokie eta %21,1 50 enplegu bitarte dituztenei.

4.4 taula
ESPORTAZIO BOLUMENA, ENPLEGU-MAILAREN ETA FORMA JURIDIKOAREN ARABERA 2006
(c.a. eta %v.).

	GUZTIRA		S. Koop.		SAL		SLL	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
5 enplegu arte	2.216.073	%0,1	151.342	%0,0	660.570	%0,5	1.404.161	%12,4
6 – 15 bitarte	14.023.969	%0,5	6.653.720	%0,3	3.913.677	%3,1	3.456.572	%30,6
16 – 50 bitarte	152.853.344	%5,6	126.460.365	%6,0	22.308.954	%17,5	4.084.026	%36,2
51 – 100 bitarte	70.994.289	%4,9	46.993.128	%2,2	24.001.161	%18,9	0	%0,0
101 – 200 bitarte	190.790.397	%10,2	172.694.171	%8,2	15.765.639	%12,4	2.330.587	%20,6
201 – 500 bitarte	569.710.655	%26,7	509.107.656	%24,2	60.602.999	%47,6	0	%0,0
500 baino gehiago	1.238.855.447	%51,9	1.238.833.509	%59,0	0	%0,0	21.938	%0,2
GUZTIRA	2.239.444.173	100	2.100.893.889	100	127.253.001	100	11.297.283	100

Nahiz eta SAL eta SLLek gizarte-ekonomiaren produkzio-egiturari lotutako esportazio bolumen osoan oso maila apalean parte hartu, %6,2 baino ez, azpimarratzekoa da forma juridiko hori duten establezimenduen protagonismo diferentziala tamaina txikiko zentroek egindako esportazioetan nabarmena dela. Era horretan, aipatu behar da esportazio gehienak 16 enplegatu edo gehiago dituzten establezimendu kooperatiboei baldin badagozkie ere, SAL eta SLL sozietateek 6 eta 15 enplegatu bitarte dituzten establezimenduek egindako esportazioen %52,6 biltzen dituztela eta 5 enplegu arte dituztenek, berriz, esportazioen %93,2.

4.5 taula
ESPORTAZIO BOLUMENAREN PISU ERLATIBOA, FORMA JURIDIKOAREN ETA ENPLEGU-MAILAREN
ARABERA (%h)

	S. Koop.	SAL	SLL
5 enplegu arte	%6,8	%29,8	%63,4
6 – 15 bitarte	%47,4	%27,9	%24,6
16 – 50 bitarte	%82,7	%14,6	%2,7
51 – 100 bitarte	%66,2	%33,8	%0,0
101 – 200 bitarte	%90,5	%8,3	%1,2
201 – 500 bitarte	%89,4	%10,6	%0,0
500 baino gehiago	%100,0	%0,0	%0,0
GUZTIRA	%93,8	%5,7	%0,5

Beste alde batetik, Gipuzkoak esportatzeko prozesuan duen pisua erabakigarria da oso. 2006. urtean Gipuzkoako enpresek gizarte-ekonomiak esportatutako 10 euroatik 7 fakturatu zuten. Horren ondoan, Bizkaiko enpresek ia %22 esportatu zuten eta Arabakoek gainerako %5 — 2004. urtean baino puntu bat gehiago—. Errealitate horrek zerikusia du lurralde bakoitzean gizarte-ekonomiako egitura ekonomikoaren enpresa profilak duen aniztasunarekin. Gipuzkoaren kasuan industria-kooperatiba handien presentzia oso nabarmena da.

5.- ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNAK ETA JARDUERA MODERNIZATZAILEAK

Atal honetan gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen kudeaketa aztertuko da, honako gaien inguruan: inplementatutako kudeaketa tresnak eta gerora tresna berriak inplementatzeko joera, ingurumenaren alorrean garatutako neurriak, beste enpresa batzuekin egindako itunak eta sinatutako akordioak, asoziazionismo-maila eta laneko arriskuei aurre egiteko sistemen ezarpena.

Mota horretako parametro kualitatiboen azterketa egiteak ahalbidetu egiten du gizarte-ekonomiaren enpresa-egituraren planifikazio eta kudeaketa sistemetara hurbiltzea; izan ere, aldagai horiek epe ertain eta luzera begira zehaztu egiten dute enpresa baten bide orria edo estrategia, baita enpresak arrakasta lortzeko dituen aukerak ere.

5.1.- KUDEAKETARAKO TRESNAK

Atal honetan aztertzen da **gizarte-ekonomiaren enpresetan kudeaketarako tresnak zein neurritan inplementatu diren**, batez ere enpresa kudeaketaren honako alorrei begira:

- Enpresen analisia eta planifikazioa, epe motz (Kudeaketa Plana) eta luzera (Plan Estrategikoa) begira.
- Giza baliabideen planifikazioa (Prestakuntza Plana eta Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua)
- Barne-erregimeneko Araudia.
- Ingurumenaren alorrean burututako jarduerak edo hartutako neurriak.

Erantzun duten enpresa guztietatik, **%40,3k adierazi du Prestakuntza Planak dituela**, eta hori da, hain zuzen ere, ezarpen-maila altuena erakusten duen kudeaketa tresna. Bigarren leku batean Barne-erregimeneko Araudia dugu, enpresen %31,2k adierazi baitute kudeaketa operatiborako tresna horrekin ari direla lanean.

Gizarte-ekonomiaren enpresa-egituran duten inplementazio-mailari dagokionez Kudeaketarako Planak eta Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburuak garrantzi txikiagoa dute, inplikaturako enpresen %29,9 eta %24,2, hurrenez hurren. Aitzitik, erantzun duten enpresen %21,5ek soilik dute prestatua euren Plan Estrategikoa, epe ertain eta luzera jorratu behar duten bidea zehazteko.

5.1 taula
ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNEN ERABILERA. 2006

	GUZTIRA	S.KOOP.	SAL	SLL
Barne-erregimeneko araudia	%31,2	%45,4	%23,9	%12,7
Kudeaketarako Plana	%29,9	%38,6	%28,9	%17
Prestakuntza Plana	%40,3	%43,8	%45,6	%32,3
Plan Estrategikoa	%21,5	%28,7	%17,2	%12,4
Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua	%24,2	%29,2	%26,1	%15,6

Kooperatibetan nabarmenagoa da aztertu ditugun kudeaketarako tresna eta tekniken ezarpena. Horren arrazoia izan liteke, neurri handi batean, forma juridiko horren barruan dauden enpresen batez besteko tamaina handiagoa izatea.

5.2 taula
ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNEN ERABILERA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA

S. Koop.	5 enplegu bitarte	6 - 15	16 - 50	51 - 100	101 - 200	201 - 500	500 enplegutik gora
Barne-erregimeneko Araudia	28,7	41,4	65,7	81,3	75,0	80,0	100
Kudeaketarako Plana	18,6	30,3	61,8	100	80,0	80,0	100
Prestakuntza Plana	23,9	45,4	56,9	90,6	80,0	93,3	100
Plan Estrategikoa	10,1	16,4	52	90,6	75,0	80,0	85,7
Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua	10,9	24,3	49	71,9	60,0	80,0	100

SAL.	5 enplegu bitarte	6 - 15	16 - 50	51 - 100	101 - 200	201 - 500	500 enplegutik gora
Barne-erregimeneko Araudia	21,6	18,2	33,3	16,7	100	50,0	100
Kudeaketarako Plana	11,8	27,3	38,1	83,3	100	100	100
Prestakuntza Plana	27,5	46,8	57,1	66,7	100	100	100
Plan Estrategikoa	3,9	9,1	35,7	50,0	100	100	100
Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua	15,7	26,0	35,7	50,0	0	0	100

SLL	5 enplegu bitarte	6 - 15	16 - 50	51 - 100	101 - 200	201 - 500	500 enplegutik gora
Barne-erregimeneko Araudia	9,6	14,9	35,0	0	50,0	0	100
Kudeaketarako Plana	13,8	19,5	30,0	100	100	0	100
Prestakuntza Plana	28,1	37,9	55,0	100	50,0	0	100
Plan Estrategikoa	10,8	10,3	25,0	100	100	0	100
Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua	10,4	25,3	30,0	0	100	0	100

Sozietate Laboralei dagokienez, egiaztatu da zentzu zorrotzenez hitz eginda SAL sozietateek neurri handiago batean dituztela tresna horiek, batez ere SAL eta SLL sozietateen establezimenduen batez besteko tamainarekin zerikusia duten faktoreengatik.

Ildo horretan, azaldu ditugun kudeaketa-teknika horien erabilera handiagoa edo txikiagoa ulertzeko garaian kontuan hartu beharreko aldagai garrantzitsuena enpresen tamaina da. Era horretan, tamainaren arabera alde nabarmenak daudela ikusten da:

- 16 enplegu baino gutxiago dituzten enpresetan oso deigarria da horrelako tresnak askoz maila apalagoan erabiltzea.
- 16 eta 50 enplegu dituzten enpresetan tresna horiek neurri handiago batean erabiltzen dira.
- Eta 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresetan tresna horiek askoz gehiago erabiltzen dira, gehienetan erabiltzen direla esan liteke eta.

Izan ere, **50 enpleguetatik aurrera kudeaketarako tresna mota horiek ohiz erabiltzen duten enpresen portzentajea kasu guztietan %70era hurbiltzen da edo kopuru hori gainditzen du.** 500 langile baino gehiago duten enpresetan planifikaziorako tresna horiek ia enpresa guztien eskura daude, baina horien %11,1ek adierazten du oraindik ez duela Plan Estrategiko propiorik garatu.

Mikroenpresen kolektiboan, ordea, Plan Estrategikoa edo Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua bezalako tresnak oraindik ez dituzten enpresen proportzioa oso handia da. 2006. urtean enpresa txiki eta ertainen %10ek (5 enplegatu baino gutxiago dituzten enpresak) baino ez zuten tresna horietakoren bat. Enpresen %15 eta %20 artean Kudeaketa Plana edo Barne-erregimeneko Araudia dute, eta kopuru altuena Prestakuntza Planaren ingurukoa da, %26,2 hain zuzen ere. Kopuru horiek goraka doazen arren, 6 eta 15 langile bitarte dituzten enpresetan oraindik baxuak dira: %13k baino ez du Plan Estrategikoa, %25 eta %30 bitarteko kopuruan Kudeaketarako Plana, Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua eta Barne Araudia dituzte, eta %43,7, gehienez, badute Prestakuntza Plana.

Enpresa ertainetan, 16 eta 50 langile dituztenetan hain zuzen, ikus daiteke dagoeneko enpresa askotan dituztela Prestakuntza Plana, Kudeaketarako Plana eta Barne-erregimeneko Araudi bat, baina, hala eta guztiz ere, ez enpresen %60 baino gehiago. Enpresen %45 inguruk badu Plan Estrategikoa eta Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua.

5.3 taula
ENPRESA-KUDEAKETARAKO TRESNEN ERABILERA, ENPRESA TAMAINAREN ARABERA. 2006

	6 enplegu baino gutxiago							500 enplegutik gora
	GUZTIRA %	%	6 - 15 %	16 - 50 %	51 - 100 %	101 - 200 %	201 - 500 %	%
Barne-erregimeneko Araudia	%31,2	%19,2	%28,5	%53,7	%69,2	%73,9	%76,5	%100
Kudeaketarako Plana	%29,9	%15,8	%26,6	%51,8	%97,4	%82,6	%82,4	%100
Prestakuntza Plana	%40,3	%26,2	%43,7	%56,7	%87,2	%78,3	%94,1	%100
Plan Estrategikoa	%21,5	%9,9	%13,0	%44,5	%84,6	%78,3	%82,4	%88,9
Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua	%24,2	%11,1	%25,0	%43,3	%66,7	%60,9	%70,6	%100

2006. urterako deskribatu dugun egoera abiapuntutzat hartuta, kontsultatutako enpresen aurreikuspenek erakusten dute horrelako tresnarik ez duten enpresen %11 inguru baloratzen ari dela epe motz batean tresnaren bat edo beste ezartzea. Enpresa talde horren barruan, gehien aipatzen direnak plan estrategikoak eta kudeaketarako planak dira, eta datozen bi urteetan ezartzea aztertzen ari dira (%39,8 eta %36,7, hurrenez hurren). Proporzio hori %28,9ra jaisten da Prestakuntza Planari dagokionez, %23,4ra Barne-erregimeneko Araudiaren kasuan eta %16,4 Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburuaz ari garenean.

Kontsideratu ditugun kudeaketa-tresna bat edo batzuk ezartzeko interes aktiboa adierazi duten enpresen testuinguruan, tamaina da, berriro ere, garrantzi handiena duen faktorea. Horiek horrela, establezimenduen %25aren interesa gutxienez jasotzen duten lehentasunak kontuan hartuta, honakoa esan liteke:

- 15 enplegu bitarte dituzten enpresetan interes handiagoa sumatzen da Kudeaketa Plana eta Plan Estrategikoari dagokionez, interesatuta dauden enpresen %40 eta %50. Barne-erregimeneko Araudi eta Prestakuntza Planari dagokionez, berriz, proporzioa %25ean dago.
- 16 eta 50 langile bitarte dituzten enpresetan, Kudeaketa Plana eta Prestakuntza Plana establezimenduen %40 ingururen interesekoa da, eta kopurua %26,9ra jaisten da Plan Estrategikoari dagokionez.
- Enpresa handienetan egoera honakoa da: 51 eta 200 langile bitarte dituzten enpresetan establezimenduen %40 eta %60 artean Barne-erregimeneko Araudiaren inguruko kezka azaltzen dute; 101 eta 500 enplegu dituzten zentroen %40 eta %50 artean Plan Estrategikoaren inguruko interesa azaltzen dute, eta proporzio hori %28,6koa da 51 eta 100 langile dituzten zentroetan; 201 eta 500 bitarte dituzten zentroen %50 inguru Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua dute kezka nagusi eta, azkenik, 51etik 100era dituztenak Prestakuntza Planaren interesa azaltzen dute.

5.4 taula
KUDEAKETARAKO TRESNAK EZARTZEKO JOERA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA
2006

*(Oinarria: horrelako tresnarik ez duten enpresak, baina datozen bi urteotan agiriak/tresnak erabiltzea aurreikusita dutenak).

	6 enplegu baino gutxiago		6 - 15	16 - 50	51 - 100	101 - 200	201 - 500	500 enplegutik gora
	GUZTIRA %	%						
Barne-erregimeneko Araudia	%23,4	%24,3	%25,5	%7,7	%57,1	%40,0	%0,0	%0,0
Kudeaketarako Plana	%36,7	%43,2	%39,2	%38,5	%0,0	%20,0	%0,0	%0,0
Prestakuntza Plana	%28,9	%24,3	%27,5	%38,5	%42,9	%20,0	%0,0	%0,0
Plan Estrategikoa	%39,8	%40,5	%47,1	%26,9	%28,6	%40,0	%50,0	%0,0
Lanpostuen Baloraziorako Eskuliburua	%16,4	%16,2	%15,7	%19,2	%14,3	%0,0	%50,0	%0,0

5.2.- KUDEAKETARI LOTUTAKO BESTE JARDUERA BATZUK

Atal honetan enpresa-kudeaketari lotutako beste aldagai espezifiko batzuekin zerikusia duen informazioa jasotzen da, hala nola enpresek laneko arriskuei aurre egiteko sistemak ezarri dituzten, ingurumenaren kudeaketarako jarduerak egiten dituzten eta prestakuntza kooperatibako prozesuak garatzen dituzten.

Laneko arriskuei aurre egiteko sistemak ezarrita dituzten ala ez aztertzerakoan, oso esanguratsua da egiaztatzea **enpresa gehienek adierazten dutela badutela sistema edo mekanismo formalen bat edo beste arriskuei aurre egiteko**. Hori adierazten du, behintzat, erantzun duten enpresen %77,4k.

Laneko arriskuei aurre egiteko neurriak ezarrita dituzten enpresen proportzioa handiagoa da eraikuntzaren eta industriaren alorrean; izan ere, alor horietan lanean ari diren enpresen %85ek dio mota horretako planak dituztela. Lehen sektorean enpresen %36k soilik du ezarrita laneko arriskuei aurre egiteko balio duen sistemaren bat.

5.5 taula

LANEKO ARRISKUEI AURRE EGITEKO SISTEMEN EZARPENA, JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA. 2006

	GUZTIRA %	Lehen sektorea %	Industria %	Eraikuntza %	Zerbitzuak %
Laneko arriskuei aurre egiteko sistemen erabilera	%77,4	%36,4	%85,4	%85,6	%71,8

Sistema horien ezarpen-ratioak gero eta handiagoak dira enpresen tamaina ere zenbat eta handiagoa denean, baina, hala eta guztiz ere, ratio horiek handiak dira baita tamaina txikiko enpresetan ere. 6 enplegu baino gutxiago dituzten enpresetan ere, esate baterako, ratioa %63,3koa da.

5.6 taula


LANEKO ARRISKUEI AURRE EGITEKO SISTEMEN EZARPENA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA. 2006

	GUZTIRA %	6 enplegu baino gutxiago %	6 - 15 %	16 - 50 %	51 - 100 %	101 - 200 %	201 - 500 %	500 enplegutik gora %
Laneko arriskuei aurre egiteko sistemen erabilera	%77,4	%63,3	%88,6	%93,3	%100,0	%95,7	%94,1	%100,0

Ingurumenari lotutako jardueri dagokienez, **enpresen %41 guztira ingurumena zaintzearen aldeko neurriak ditu ezarrita.**

Ingurumenarekin lotutako jarduerak burutzen dituen enpresa kopurua hasiera batean handitu egiten da enpresaren tamainarekin, eta 51 eta 200 enplegu dituzten enpresen kasuan %90era iristen da, gutxi gorabehera. Hala eta guztiz ere, proportzio hori %70,6ra jaisten da 201etik 500 langile bitarte dituzten enpresetan, eta %66,7ra 500 langile baino gehiago dituztenetan. Oro har, 16 langile edo gehiago dituzten enpresetan proportzioa beti handiagoa da, eta 6 eta 15 langile artean dituzten enpresen kasuan %50etik oso gertu dagoela esan daiteke (%45,6). Kopuru horietatik urruti enpresa txikiak daude soilik, 1 eta 5 enplegu artean dituzten enpresen %25,3k baino ez baitituzte ingurumenaren aldeko jarduerak burutzen.

5.1 irudia
INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERAREN BAT BURUTZEN DUTEN ENPRESEN PORTZENTAJEA,
ENPLEGU-MAILAREN ARABERA (maila guztietako enpresa guztien %)




Forma juridikoa dela eta ez dago alde nabarmenik ingurumenarekin lotutako jarduerak garatzeko maiztasunari dagokionez. Hala eta guztiz ere, eremu horretako neurriak ezartzen dituzten SAL sozietateen portzentajea, %47, kooperatibei eta SLL sozietateei dagokien indizearen gainetik dago (%42 eta %35, hurrenez hurren).

Azterketa arloz arlo eginez gero, adierazi behar da industria-sektorearen barruko enpresak direla ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak burutzeko joera handiena dutenak, konpromisoa bereganatu duten enpresak kopuru osoaren %53 baitira. Beste muturrean lehen sektorea eta eraikuntza ditugu, ingurumenaren alde burutzen dituzten jarduerak %28 ingurukoak izanik. Zerbitzuen sektorearen enpresak bi mutur horien artean kokatzen dira: enpresa horien %36k adierazten du ingurumen kudeaketarako jarduerak burutzen dituela.

Enpresek eremu honetan burutzen dituzten jarduera eta ekintza tipologia oso anitza da, baina batez ere birziklatzea eta jardueran erabilitako materialen tratamendua aipatu behar ditugu, oinarrizko maila batean (papera, beira, ekipamenduetarako ordezeko atalak eta abar birziklatzea da gehien aipatzen den neurrietako bat) nahiz maila espezializatuago batean, jarduera mota bakoitzari lotutakoa. Dena den, maila aurreratuago batean, enpresa batzuek adierazi dute ingurumenaren alorreko kudeaketa integralerako sistemak garatu dituztela, ISO 14000 edo ISO 14001 egiaztagiria lortzera bideratutakoak esaterako.

Kontuan hartutako enpresa guztiei dagokienez, ingurumenaren alorreko jarduerak burutzen dituzten enpresen %22,6k oinarrizko birziklapeneko jarduerak gauzatzen dituzte, %8,4k era espezializatuan egiten dute, eta %5,1ek ingurumen kudeaketarako sistemak dituzte.


5.2 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEK INGURUMENAREN ALDE BURUTUTAKO JARDUEREN
TIPOLOGIA. 2006



Azkenik, **prestakuntza kooperatiba eta sozietate laboralen alorrekoaren eraginari dagokionez, erantzun duten enpresen %23,7k diote** eremu honetan jardueraren bat edo beste burutzen dutela.


Prestakuntza kooperatiboa edo sozietate laboralen alorrekoa burutzen duten enpresen ehunekoa asko handitzen da enpresaren tamaina handitzen den neurrian: 15 enplegu bitarte dituzten enpresen kasuan %25 baino gutxiagok burutzen dute mota horretako prestakuntza jarduerarik, 16 eta 50 langile bitarteko enpresetan proportzioa %43,3koa da, 51 eta 500 bitartekoetan %60 eta %70 arteko mailan dago eta kopuru altuenak 500 langile edo gehiago dituzten enpresetan lortzen dira, %77,8, hain zuzen ere.

5.3 irudia
PRESTAKUNTZA KOOPERATIBOA ETA SOZINETATE LABORALEN ALORREKOA, ENPRESA TAMAINAREN ARABERA (eremu honetan jarduerak burutzen dituzten enpresen %, enplegu-mailaren arabera)



Jarduera mota hori burutzen duten enpresen artean, gehienek, %70,8k, bazkideei bideratzen dizkiete.

5.4 irudia
PRESTAKUNTZA KOOPERATIBOA ETA SOZINETATE LABORALEN ALORREKOA. Prestakuntzaren jasotzaileak. 2006



5.3.- ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA

Enpresen %26,5 inguruk adierazi du beste enpresa batzuekin enpresen arteko lankidetzaren motaren bat edo beste duela, alegia, ohiko jarduerak berezkoak dituen harreman ekonomikoetatik harantzago doazen harremanak dituela.


Egiaztatu da harreman horietan alde nabarmenak daudela, enpresen forma juridikoaren arabera. Ildo horretan, kooperatiben artean proportzioa %34,6koa den bitartean, sozietate laboralen kasuan ez da %20 baino handiagoa.

5.7 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN LANKIDETZA HARREMANAK, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA

	GUZTIRA %	S.KOOP %	SAL %	SLL %
Lankidetzaren harremanak dituzte	%26,5	%34,6	%14,4	%19,7

Inplikaturako enpresen kasuan, lankidetzaren harremanen izaerak erakusten du beste enpresekin mantentzen diren erlazioak gehienetan unean unekoak direla (%65,4). Dena dela, kasuen %43 harreman horiek estrategikoak izatera iristen dira, enpresen %21,5ek bigarren mailako lankidetzaren jarduerak burutzen dituzte eta %9,1ek akzio trukaketaren ingurukoak. Hala eta guztiz ere, %2,7 eskas batek joint-venture motako aliantza estrategikoak ezartzen ditu.

5.5 irudia
GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA HARREMANEN IZAERA (enpresa portzentajea kopuru osoarekiko)



Lankidetzaren harremanak mantentzeko aukeratzen diren enpresen forma juridikoa kontuan hartuz gero, kooperatibek harreman estuena euren formatu bereko enpresekin mantentzen

dituzte, enpresen %85 daudelako erlazionatuta beste kooperatiba batzuekin. Enpresen %40, ordea, merkataritza-sozietateekin jartzen da harremanetan, beste sozietateei dagozkien harremanetan antzemandako %28an eta sozietate laboralei dagozkien %15eko baino proportzioa handiagoan.

Sozietate laboralen kasuan, harremanak mantentzeko aukeratzen dituzten enpresen forma juridikoa anitzagoa da, baina merkataritza-sozietateekin mantentzen dituztenak dira nagusi (%73 SAL sozietateen kasuan eta %69 SLLen kasuan). Hala eta guztiz ere, %40 eta %45 bitarte lankidetzara harremanak mantentzen dituzte beste sozietate laboral batzuekin, kooperatiben inguruan aipatu dugun %15aren gainetik.


5.8 taula
LANKIDETZA HARRREMANAK MANTENTZEKO AUKERATZEN DIREN ENPRESEN FORMA JURIDIKOA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA.2006

	GUZTIRA	S.KOOP.	SAL	SLL
Kooperatibak	%65	%85	%23	%26
SAL/SLL	%24	%15	%42	%44
Merkataritza-sozietateak	%50	%40	%73	%69
Bestelako sozietateak	%31	%28	%35	%40

Enpresen tamaina, berriro ere, oinarrizko aldagaia da enpresek lankidetzarako harremanak ezartzeko garaian erakusten duten joera handiagoa edo txikiagoa azaltzeko.

Hortaz, 15 langile bitarte dituzten enpresen %25 baino gutxiagok dituzte mota horretako harremanak beste enpresa batzuekin, baina 16 eta 50 enplegu bitarte dituzte enpresen kasuan proportzioa %39koa da. 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresetan portzentaje horrek nabarmen egiten du gora, eta arruntena da %65 eta %75 artean kokatzea. Kopuru altuenak 201 eta 500 langile bitarte dituzten enpresetan lortzen dira, %94,2 hain zuzen.

5.6 irudia
ENPRESEN ARTEKO LANKIDETZA, ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINAREN ARABERA .2006
(enpresa portzentajea kopuru osoarekiko)



Beste alde batetik, enpresen arteko lankidetzak harremanak mantentzen dituzten enpresa gehienak EAE barruan kokatuta dauden beste enpresa batzuekin jartzen dira harremanetan, %93ko proportzioan. Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen %10 baino gutxiagok dituzte mota horretako harremanak Estatutik kanpoko beste enpresa batzuekin (%8 Europar Batasunean eta %2 munduko beste edozein herrialdeetako enpresekin). Kopurua %21era iristen da Estatuan kokatuta dauden enpresekin harremanak mantentzeari dagokionez.

Sozietate laboralek Estatuko enpresekin proportzio handiagoan mantentzen dituzte harremanak. Inplikaturako SAL sozietateen eta SLLen kopuruak %35 eta %22 diren bitartean, hurrenez hurren, kooperatiben kasuan %18 baino ez da. Baina azken horiek neurri handiago batean abiatzen dituzte harremanak atzerriko enpresekin, Europar Batasunaren eremuan zein mundu osoko enpresekin. Dena dela, Euskadiko enpresa kooperatiben %10 eskas batek mantentzen ditu lankidetzak harremanak Europar Batasunaren enpresekin.


5.9 taula
ENPRESEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA.2006

	GUZTIRA	S.KOOP.	SAL	SLL
EAE	%93	%93	%85	%97
Espania	%21	%18	%35	%22
Europar Batasuna	%8	%10	%4	%6
Gainerako herrialdeak	%2	%3	%0	%0

Azkenik, adierazi beharra dago hiru enpresetatik batek (%32,1) adierazten duela enpresa elkarteren bateko kide dela. Kopuru hori askoz handiagoa da kooperatiben artean (%42,4) SAL sozietateen artean baino (%30), eta kopuru txikiena SLLetan (%17,3) erdiesten da.

Arlo honetan, berriro ere antzeman daiteke enpresa txikiaren parte hartzea txikiagoa dela. Horiek horrela, mikroenpresen arteko asoziazionismo-maila %18an dagoela esan daiteke, eta proportzioa handitu egiten da 6 eta 15 enplegu bitarte dituzten enpresen kasuan, %35, eta 16tik 50era dituztenen kasuan, %49. 50 enplegu baino gehiago dituzten enpresa mota guztietan proportzio hori %67tik %88ra bitarte kokatzen da.

5.7 irudia
 ENPRESA ELKARTEREN BATEKO KIDE DIREN ENPRESEN PORTZENTAJEA, FORMA JURIDIKOAREN ETA
 TAMAINAREN ARABERA. 2006



6.- GIZARTE-EKONOMIAREN BESTE MAGNITUDE EKONOMIKO BATZUK

Seigarren atalean izaera ekonomiko eta finantzieroa duten beste aldagai batzuk aztertuko dira, horiek EAEko gizarte-ekonomiak autofinantzatzeko duen ahalmenaren berri ematen baitute baita kanpora begira zorpetzeko duen mailaren berri eman ere. Horretaz gain, dirulaguntza moduan lortutako baliabideak eta ibilgetu material eta immaterialean egindako inbertsioen finantziazioa nola gauzatu den ere kontuan hartuko dira.

6.1.- GIZARTE-EKONOMIAREN BEREZKO FINANTZIAZIOA

Euskal gizarte-ekonomiaren **funtsen edo berezko baliabideen bolumena** (kapitala, erreserbak, eta aplikatzeko zain dauden emaitzak) **2006. ekitaldian 5.520 milioi eurokoa izan da, eta 2004. urtearekin alderatuz gero %7ko hazkundea adierazten du, termino nominaletan hitz eginda.**

Antzemandako hazkundea moderatua dela esan liteke magnitude honek 2002 eta 2004 artean izan zuen bilakaerarekin alderatuz gero, orduan %39,5 hazi baitzen. Nolanahi ere, jarraipena ematen dio aurreko biurtekoetan antzemandako joerari; izan ere, biurteko horietan euskal gizarte-ekonomia osoaren finantza-egoera sendotuz joan zen. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago 2004. ekitaldiak erregistratu zituen ez zirela aurreko ekitaldietan erregistratutakoak bezain positiboak izan, eta horrek eragina izan zuela 2005ean erreserbei egin beharreko horniduretan. Era horretan, 2004. urteko cash-flow izenekoak 2002koa baino %6,9 handiagoa baino ez zen izan, eta horrek termino errealetan oso hazkunde txikia izan zela adierazten du.

Alorrez alor, EAEn gizarte-ekonomiak sortutako funts propioen %53,7 zerbitzuen sektoreari dagozkio, eta %45,4, berriz, industria-sektoreari.

6.1 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA
(c.a. euro kopurua milatan, %v)

	FUNTS PROPIOAK	%
Lehen sektorea	7.039.090	%0,1
Industria	2.505.691.533	%45,4
Eraikuntza	43.832.799	%0,8
Zerbitzuak	2.963.492.672	%53,7
GUZTIRA	5.520.056.094	%100,0

Bere aldetik, funts propioen gaineko errentagarritasun-mailak handitu egin dira 2004. ekitaldiari dagokionez. Era horretan, gizarte-ekonomia osatzen duen enpresa-egituraren batez besteko errentagarritasuna %7,1etik %9,5era pasa da. Dinamika horrek zerikusia du 2006. ekitaldian enpresek erregistratu dituzten emaitzen bilakaera positiboarekin, baita aurreko biurtekoarekiko funts propioek izan duten hazkunde txikiagoarekin ere.

Antzemandako joera sendotu egin da zerbitzuen sektorean nahiz industria-alorrean. Horrekin batera 2004 eta 2006 artean errentagarritasun-tasak handitu egin direla sumatzen da, %8,8tik %11,2ra industria-sektorean, eta %6,1etik %8,2ra zerbitzuen sektorean. Errentagarritasun-mailek izan duten dinamika positibo horren isla da enpresa handiek, industriaren alorrekoek zein hirugarren sektorekoek, emaitzak suspertu direla agerian jarri izana.


6.2 taula
GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA. FUNTS PROPIOEN GAINEKO ERRENTAGARRITASUNARI BURUZKO ERREFERENTZIA
 . (c.a. euro kopurua milatan.)

	FUNTS PROPIOAK	ERRENTAGARRITASUNA/FUNTS PROPIOAK	
		2004	2006
Industria ⁽¹⁾	2.549.524.332	8,8	11,2
Zerbitzuak	2.963.492.672	6,1	8,2
GUZTIRA	5.520.056.094	7,1	9,5

⁽¹⁾ Eraikuntza barne

Finantza-sendotasunaren mailak aztertzerakoan, eta, jarduera-sektorearen arabera enplegu bakoitzeko berezko baliabideen ratioa espezifikoki, nabarmendu egiten da gizarte-ekonomiaren alorreko zerbitzu-enpresen egoera ona dela oso. Ildo horretan, zerbitzuen sektoreko enpresek aisa gainditzen dute gainerako sektoreek enplegatu bakoitzeko berezko baliabideen maila: 104.492 euro zerbitzu-enpresen kasuan, 77.456 industria-enpresetan, 52.926 lehen sektoreko enpresetan eta 19.665 eraikuntzaren alorrekoetan.

6.1 irudia
BATEZ BESTEKO FUNTS PROPIOAK, ESTABLEZIMENDUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA (Eurotan)



Enpresen tamaina handiagoak eragin nabarmena du finantziario propioa izateko garaian. Hortaz, enpresa hauen presentzia handiagoa duten sektoreetan, industria –bereziki- eta zerbitzuen sektorea bezalako sektoreetan alegia, finantziario propioaren ratioak askoz altuagoak izaten dira.

Orain arte adierazitakoa gorabehera, kontuan hartu behar da zerbitzuen sektorearen aldeko diferentzial positiboa, neurri handi batean, sektoreko finantza zerbitzu- eta banaketa-enpresen eraginari zor zaiola. Ratioa autofinantzatzeko ahalmen handia duten finantza eta banaketa enpresa horien eragina kontuan hartu gabe aztertzen baldin bada, zerbitzu-enpresek dituzten baliabide propioen maila 22.786 euroko ratoraino jaisten da. Ratio hori nabarmen baxuagoa da industria-enpresek dutena baino, eta eraikuntzaren alorreko enpresetan erregistratutakoa baino ez du gainditzen.

Forma juridikoaren araberrako analisiak erakusten du, aurreko ekitaldietan bezalaxe, kooperatibetan funts propioen kontzentrazioa handia dela. Enpresa kooperatibek funts propio guztien %95,3 biltzen duten bitartean, SAL sozietateek %3,6 eta SLLek %1,1 baino ez dute biltzen. Era horretan, sozietate laboralen finantziario propioaren mailak kooperatiben mailak baino askoz baxuagoak dira.

Nahiz eta eraikuntzan asko jaitsi, kooperatibek funts propioak kontzentratzeko duten joera errealitate bat da euskal gizarte-ekonomiaren alorreko jarduera-sektore guztietan.

Antzemandako banaketak inplikatzeko du sozietate laboraletan enplegu bakoitzeko baliabide propioen ratioa txikiagoa dela, batez ere SLLen artean. Kooperatiben kasuan 106.000 eurokoa den bitartean, SAL sozietateetan 24.000 eurokoa da, eta SLL sozietateetan 12.000 eurokoa baino ez da¹².

¹² SLL gehienek emaitzen kontuen analisiak, eta neurri txikiagoan SLLen analisiak, erakusten du finantziario propioaren mailak oso txikiak direla, eta aurreko ekitaldietan 12. kontuan galerak metatu direla.

6.3 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2006 (c.a. eurotan eta % h.)

	GUZTIRA		S.KOOP		SAL		SLL	
	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.	c.a.	%h.
Lehen sektorea	7.039.090	100	6.682.297	%94,9	50.971	%0,7	305.823	%4,3
Industria	2.505.691.533	100	2.315.530.748	%92,4	156.502.585	%6,2	33.658.200	%1,3
Eraikuntza	43.832.799	100	26.406.883	%60,2	12.304.920	%28,1	5.120.997	%11,7
Zerbitzuak	2.963.492.672	100	2.911.165.171	%98,2	29.554.141	%1,0	22.773.360	%0,8
GUZTIRA	5.520.056.094	100	5.259.785.098	%95,3	198.412.616	%3,6	61.858.380	%1,1

Gizarte-ekonomiaren funts propio guztien %55,5 Gipuzkoako enpresei dagokie, %31,4 Bizkaiko enpresei eta gainerako %13 Arabako enpresei.

Gipuzkoan, industria-enpresek sortutako funts propioek 2002 biurtekora arte kopuru osoarekiko kopuru handiena baziren ere, 2004. urtean ehuneko hori zerbitzuen sektorearen parte hartzeak gainditu zuen. 2006. urtean industria-sektoreak berriro ere nagusitasuna lortu zuen, lurralde historiko horretan sortutako funts propio guztien %63,6 kontzentratuta. Zerbitzuen sektoreak, ordea, funts horien zati nagusia Bizkaian eta Araban, %75,1 eta %78,1 hurrenez hurren, kontzentratzen du.

6.4 taula

GIZARTE-EKONOMIAREN FUNTS PROPIOEN ARLOZ ARLOKO BANAKETA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. (c.a. eurotan eta %v.)

	EAE		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.	c.a.	%v.
Lehen sektorea	7.039.090	0,1	4.754.796	0,7	1.785.723	0,1	498.571	0,0
Industria	2.505.691.533	45,4	144.607.526	19,9	414.424.616	23,9	1.946.659.391	63,6
Eraikuntza	43.832.799	0,8	9.925.423	1,4	14.766.826	0,9	19.140.550	0,6
Zerbitzuak	2.963.492.672	53,7	567.453.446	78,1	1.300.354.070	75,1	1.095.685.156	35,8
GUZTIRA	5.520.056.094	100	726.741.191	100	1.731.331.235	100	3.061.983.669	100

Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresen pasibo osoarekiko funts propio horiek suposatzen duten kapitalizazio berme-mailaren inguruan, txosten honetan oinarritzko ratioak hartu dira kontuan, enpresa baten funts propioek mailak eskaintzen dituen zorpetze-mailak, edo arriskua eta bermea edo autofinantzatzeko aukera aztertu ahal izateko¹³.

Analisi agregatuaren ikuspegitik, funts propioek pasibo osoarekiko lortu duten pisua %23,2 inguru kokatzen da. Horrek esan nahi du gizarte-ekonomiaren egoerari dagokionez, zorpetzearekin zerikusia duten finantza-ratioek ez dutela oro har gomendatzen diren mailen barruan kokatzea lortu.

¹³ Funts propioen estaldura-maila baloratzea ahalbidetzen duten ratioak zorpetzea (kanpoko funtsak/funts propioak) eta bermea (aktibo osoa/ galdagarri osoa) dira. Hasiera batean, eta finantza kudeaketaren testuinguruan, ratio horiek 1etik 2ea eta 1,5etik 2ra bitarte kokatu behar dira, hurrenez hurren, funts propioen zorpetze- eta estaldura-mailak egokiak izan daitezzen.

Dena dela, arazoak oso dimentsio sektorial zehatza du. Ildo horretan, zorpetze-maila gomendatutako mailaren gainetik hirugarren sektoreko enpresen kasuan dago soilik (1 eta 2 artean). Adierazlea kasu horretan 5ean kokatzen da, oso urruti, beraz, eska daitezkeen mailetatik. Nekazaritza, eraikuntza eta industriaren alorreko enpresen ratioa, ordea, askoz beherago dago, 1,6, 1,5 eta 1,4an kokatua, hurrenez hurren.

Forma juridikoaren ikuspegitik, maila hori askoz altuagoa da SSLetan (2,4) eta kooperatibetan (3,3), erakunde horiek gomendatutako ratioaren gainetik kokatuko bailirateke (2). SALen zorpetze-maila, aldiz, 2,3an dago, eta joan den biurtekoan izan zuten zorpetze-maila baino baxuagoa da.

Enpresaren tamainari erreparatuta, 200 enplegu baino gehiago dituzten enpresen artean dagoen zorpetze-maila oso handia da, 4tik gorako zorpetze-mailarekin. 100 langile baino gutxiago dituzten enpresek dituzten zorpetze-ratioak, berriz, maila optimoetan daude, 5 enplegatu dituzten enpresen kasuan izan ezik (2,8ko ratioarekin).

6.5 taula
ZORPETZE-RATIOAK, ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA
(% Kanpoko funtsak/Funts propioak)

	Zorpetze-ratioa
5 enplegu arte	2,8
6-15 bitarte	1,9
16-50 bitarte	1,5
51-100 bitarte	1,7
101-200 bitarte	0,9
201-500 bitarte	4,3
500 baino gehiago	4,0
GUZTIRA	3,3

Berme-ratioari dagokionez, enpresen segmentu desberdinek normalean kontsideratzen diren estandarrei egokitutako mailak erakusten dituzte. 2006. urtean aurreko ekitaldiaren emaitzen ondorioz gizarte-ekonomiaren funts espezifikoei egindako hornidurari dagokionez, egiaztatu egiten da hornidura horien bolumena handitu egin dela 2004. urtean erregistratutako kopuruari dagokionez.

Kooperatiben kasuan, hezkuntza eta sustapen kooperatiboari bideratutako funtsaren bolumena 2006. urtean 50,4 milioi eurotara igo zen guztira, eta derrigorrezko erreserba-funtsera, berriz, 109,3 milioi euro bideratu ziren, bi kasuetan 2004. ekitaldian bideratu ziren 44,8 eta 79,9 milioiekiko hazkunde handia adierazten dutenak¹⁴.

¹⁴ 2006 epean egindako hornidurak, emaitzei lotuak, 2005 epean lortutako emaitzei dagozkie.

2006. urtean zehar kooperatiben artean hezkuntza eta sustapen kooperatiborako funtsetik zetozen 36,5 milioi euro aplikatu ziren guztira, aurreko biurtekoan baino %6,5 gehiago. Partida horretatik, %35,6 prestakuntzara bideratu da, %28,9 enpresen arteko lankidetzara, %28,4 kultur, lan eta asistentziaren alorreko sustapenera, eta gainerako %7,1 beste helburu batzuetara.

Sozietate laboralen kasuan, erreserba-funts berezira bideratutako kopuru ekonomikoa 15,7 milioi eurotan zegoen, aurreko ekitaldiko 11,1 milioiei oso gaineratik, beraz.

6.2.- GIZARTE-EKONOMIAREN ALORREKO ENPRESEN INBERTSIOA ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN FINANTZIAZIOA

Gizarte-ekonomiaren alorreko enpresek **2006. urtean egindako inbertsioa**, ibilgetu materialean zein immaterialean, **324 milioi euro ingurukoa da. Ibilgetu materialean egindako inbertsioa 291 milioi eurokoa da guztira, eta ibilgetu immaterialean egindako inbertsioari, berriz, 33 milioi euroko kopurua** dagokio.

Aurkeztutako datuek bilakaera inbertitzailea nabarmen mantsotu dela erakusten dute, zegoeneko 2004. urtean sumatu zen joera izanik hori. Ibilgetu materialaren kasuan, inbertsioa %12,9 jaitsi da 2004. urtean erregistratutako inbertsioarekiko, 2002 eta 2004an antzemandako %10,2ko murrizketa luzatzen duen murrizketa.

A. Ibilgetu materialean egindako inbertsioa

Industria eta zerbitzuen alorreko enpresek ibilgetu materialean egindako inbertsioaren %97,5 sortzen dute (%49,9 eta %47,6, hurrenez hurren). Eraikuntzaren sektoreak biltzen duen portzentajea %2koa da gutxi gorabehera, eta lehen sektorean egindako inbertsioaren pisua hutsala da.

Beste alde batetik, kopuruek agerian jartzen dute industrian eta hirugarren sektorean enpleguko dagoen batez besteko ratioen antzeko ratioak daudela sektore honetan: 4.499 euro eta 4.890 euro enplegu bakoitzeko, hurrenez hurren.

6.6 taula
